




**Beasaingo
azokak 75
urte**

**Goierriko
turismo
foileto
berriak**

**'Garena
garela.
Etorkizunean
gaudela'
Hitzaldi sorta**

Joseba Beloki, Tourrari begira



**VAC
VAC**



BERTAN S.L.

EGUR BILTEGIA

VACSOL - WR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

**PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA**

SAN BALENTIN



Lore apainketa
mota guztiak
egiten dira

- Ezkontzako lora sortak
- Eliza eta kotxeen apainketa
- Larunbat arratsaldeetan zabalik

SAN BALENTINETAKO
AUKERA ZABALA!

☎ 943 88 98 83 Geltokiko kioskoa
ORDIZIA



Yañez

BITXIDENDA
ERLOJUTEGIA

Kalitatezko bitxigileak

Prezio egokiak

Aukera zabala

Gure artifizial guztiak dohain grabatzen ditugu

Nagusia, 22 ☎ 943 88 04 99 **BEASAIN**



LUBERRI
Loradenda

- ☀ Lore sortak
- ☀ Lore lehorren zentruak
- ☀ Opariak
- ☀ Ezkontzetako sorta eta apaingarriak

J.M. Barandiaran Plaza, 3
☎ 943 16 04 79 **ORDIZIA**

NEGUERUELA

BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA

☎ 943 16 08 30
Hirigoien, 12
LAZKAO


Garmendia
Bitxitegia

Aprobetxatu beherapenak

Maiteminduentzako bitxiak

Kale Nagusia, 18 **BEASAIN**

☎ 943 88 15 32



izadia
Loradenda

- * Ezkontzak.
- * Lore-konposizioak.
- * Koroak.
- * Etxe-sarrerak eta bulegoak.
- * Lorategi proiektuak.

San Inazio, 11 ☎ 943 88 14 40 **BEASAIN**



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 **ORDIZIA**

*Maitasunegiz
betetako
opariak*

Non zer

- 7 TXANDAKA:** Iñaki Murua
- 8-9 AHOLKUA:** Bularreko minbizia
- 10 KATE MOTZEAN:** Manuel Barandiaran
- 11:** Goierriko turismoa
- 12-13: KILOMETRAK 2001:** 'Garena Garela. Etorkizunean gaudela' hitzaldi zikloa
- 14-22 KRONIKAK**
- IDIAZABAL 14:** Industrialdea.
- MUTILOA 14:** Mus txapelketa.
- ZEGAMA 15:** Zaharkinak.
- BEASAIN 16:** Idazlehiaketako sariematea.
- ZALDIBIA 17:** 1517 biztanle.
- ZERAIN 17:** Santa Ageda eskea: 250.000 pezeta.
- LEGORRETA 18:** El Salvadorra dirulaguntza.
- ITSASONDO 18:** Gaztañaga eta Ayúsoren azañak.
- ORDIZIA 19:** Internet dohainik.
- LAZKAO 20:** Kirolariak protagonista.
- ATAUN 21:** Behi eroak.
- SEGURA 22:** Kultur ekitaldiak.
- 24-25: KIROLA:** Joseba Beloki.
- 29: ZAHARRAK BERRI:** Lutxi Zaldúa.
- 30: FOTO ZAHARRA:** Lazkaotarrak.



Baserritarrak omendu ditu Udalak

Beasaingo azokak 75 urte

Otsailaren 2an, Kandelaria egunean, diamantezko ezteiak ospatu zituen Beasaingo azokak. Urteurren berezi hori ospatzeko, Udalak, azoka berezia antolatu zuen eta urte hauetan zehar protagonistak izan diren baserritarrak omendu nahi izan zituen, oroigarri bana emanez. Baserritarrik gehienak oraindik ere azokara etorriz jarraitzen badute ere, bi badira dagoeneko lan hori utzia dutenak: Gudugarretako Agerre-goena baserriko Iñaxi Esnaola eta Lazkaoko Untzindegi baserriko Pakita Gerra. Hauei ere oroigarri bana eman zitzaion, argazkian ikus daitekeen.

Pello Gibelalde zinegotziak, Udalaren partetik, eskerrak eman nahi izan zizkien guztiei, urte hauetan guztian egindako ahaleginarengatik. Era berean, etorkizunean ere azokak aurrera egin dezan, guztiek elkarrekin lanean jarraitzeko deia egin zuen.

Itxura aldaturik

Horrelaxe azaldu zen otsailaren 2ko azoka berezia. Plaza azpia margoturik eta baserritarrek euren postuetan, euskal mantela zutela. Hemendik aurrera, asteartero jarriko dituzte mantelak baserritarrek.

Urte luzeko historia

Jose Guridi alkatearen ekimenari esker, astearteko azoka honek, probintzia mailako administrazioan instituzionalizatu eta ofizialtasuna jaso zuen, 1926ko otsailaren 2an. Dena den, aurretik ere egiten zen azoka Beasainen. Baserritar batzuk egunero-egunero joaten ziren, beste batzuk astean bizpahiru egunetan. Ganadua ere saltzen zen. Plazan kontsumoko gaiak saltzen ziren eta txerrientzat, txerrikortak jarri ziren Sangronizko etxearen atzealdean. Behi, zaldi eta ardientzat barrak jarri ziren bertan lotzeko. Egungo Bide-luze plazan, askak eraiki ziren abereentzat.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Ederne Albizu, Laida Oiarbide, Inko Mujika, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Nagore Etxeberria, Agurtzane Bikuña, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, Maria Morales, Iñaki Murua.

Azaleko argazkia: Xabier Usabiaga.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.000 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



*Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria*



Metalgintzako greba

ELA, LAB eta ESK sindikatuak deituta, greba egin zen metal arloan otsailaren 2an. Goierrin eragin handiena, batez ere enpresa txikietan nabaritu zen. Otsailaren 8an eta 9an ere greba deialdia zegoen baina ez daukagu egun horietako daturik. Sindikatuak pozik azaldu dira grebaren erantzunarekin. Lan hitzarmenen negoziazioan patronalaren jarrera aldaeraztea eta 35 orduko lan astea eskatu nahi izan zen grebarekin.

Medicus Mundi: Indiara laguntza

Indian izandako lurrikarak eragin dituen kalteak arintzen laguntzeko, Medicus Mundi Gobernu Kanpoko Erakundeak, kontu korrante bereziak ireki ditu aurrezki kutxetan, dirua biltzeko helburuarekin. Hiru kontu korrante zabaldu ditu Medicus Mundik.

Euskadiko Kutxa: 3035 0060 40 0600103828

Kutxa: 2101 0001 15 0010599918

BSCH: 0049 0001 59 2810016616



Periko Alonso, Maria Oruna eta Antonio Jimenez kofrade berriak.

Odolki kofradiko ohorezko kofrade berriak

Maria Oruna Miss Gipuzkoa eta Euskadi, Periko Alonso futboleko entrenatzailea eta Antonio Jimenez Madrilgo Etxegarate jatetxeko nagusia izendatu zituzten Beasaingo Odolki kofradiko ohorezko kofrade, Loinazko San Martin egunean, otsailaren 5ean, Beasainen. XVI. kapitulua izan da aurtengoa.

Egun berean, Odolkiaren kofradikoek urteko bazkaria egin zuten Castillo jatetxean. Nola ez, odolkia izan protagonista nagusia, Ordiziako Barandiaran harategiko Manuel Barandiaranek prestatuak. Bera izan baitzen, azaroan Beasaingo odolki txapelketako irabazlea.

Lerro hauek, zuzenketatxo bat egiteko aprobetxatu nahi genuke. Aurreko aleko Beasaingo kronikan, Manuel Barandiaran Aranburu harategikoa zela jartzen zuen. Ez da horrela ordea. Barandiaran harategikoa da. Barkatu eragozpenak.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATEAK eta abar



× ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

ETXE ADOSATUAK ATAUN San Martinen

Beheko solairua



Lehenengo solairua

28.000.000
pezetatik hasita

- Eraikitako 250 m² inguru
- Sotoa + 2 solairu + atikoa
- Egongela, 3 logela, sukaldea jantzita, 2 bainugela eta komuna

ETXEAK TERRAZA ETA LORATEGIAREKIN
1. kalitateko materiale eta akaberak

Promotorea: EDERKI 2002 S.L.

URUMEA AGENTZIA INMOBILIARIOA - 943 47 40 44 Prim kalea, 59 - 1. erdia DONOSTIA

Alzheimer gaixotasunari buruzko jardunaldiak

Urtarrilaren 30ean eta 31n, eta otsailaren 1ean, Alzheimer gaixotasunari buruzko jardunaldiak izan ziren Ordiziako Jubilatuen elkartearen.

Ordiziako Osasun Zentroaren oharra

Ordiziako Osasun Zentroan egiten ari diren berrikuntzen bigarren atalari hasiera ematera doaz. Hori dela eta, otsailaren 5etik aurrera Osasun Zentroaren sarrera parketik izango da.

Renfe: Narrazio laburren IV. lehiaketa

8 eta 17 urte bitartekoentzat da lehiaketa. Gaia trenbidea izango da. Lanen luzera 3 orrialdekoa izango da gutxienez eta gehienez 10ekoa. Idazlanekin batera, Renfe Hurbileko trenaren tiketa ere bidali beharko da. Martxoaren 20an amaituko da lanak aurkezteko epea. Donostiako Bilintx mekadendara bidali behar dira lanak (Fermin Calbeton, 21). Sariak: 1. saria: asteburuko bidaia Alacantara; 2. saria, asteburuko bidaia Bartzelonara eta 3. saria asteburuko bidaia Madrilera. Bilintxek bi sari berezi emango ditu.

Renfe: V. marrazki lehiaketa

6-14 urte bitarteko haurrentzat da. Gaia: Renfe Hurbileko tren batetik ikusten den mundua. A4 neurriko paper edo kartulinaran aurkeztu behar dira lanak, Renfe Hurbileko tren txartel batekin batera. Donostiako Bilintxera bidali behar dira lanak ((Fermin Calbeton, 21), martxoaren 20a baino lehen. 29 sari banatuko dira.

Iñaki Azurmendi: banakako Urrezko Aizkoraan

Arriarango aizkolariak banakako Urrezko Aizkora lehiaketan parte hartuko du. Otsailaren amaiera aldera hastekotan dira. Olasagasti, Mindegia, Peñagarikano, Larretxea... aizkolari onenekin arituko da norgehiagokan.

**Marta Lizaso - Nerea Garmendia**

ETBek pantailaratzeko asmoa duen 'Hasiberriak' telesailarako aktoreak aukeratzen ari dira. Castingak egin ziren urtarrilaren 4an eta 5ean eta bost pertsonaietarako hamar lagun daude aukeran. Tartean bi beasaindar dira: Marta Lizaso eta Nerea Garmendia. www.hasiberriak.com gunean dago bozketan parte hartzeko aukera.

**Irati Goikoetxea**

Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako Iparragirre literatur saria irabazi du Irati Goikoetxea beasaindarrak, 19 urte artekoen olerki atalean, 'Amets urratua baino haratago' lanarekin.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Armentiaiko gotzainak

1936ko gerra ondorenean Donostiako Atotxako frantziskanoen komentuan zegoen fraide Lizarralderekin helburu berdinak dauzkate, Armentian 2001eko urtarrilaren 13an bildu ziren gotzain hauek. Gizarteak egin dituzten aldaketara azala egokitu, eta helburua, Euskal Herria bezalako etnia, desagertu edo bizirik jarraitu, dagoen borrokan. Herria defendatzen armarik ez dago hartzerik, baina bai, Euskal Herria suntsitzeko, horiek, sakratuak dira eta, hortan dute elkarren antza.

Ni soldadu Donostiako Loiolan nengoela, Lizarralde frailea Atotxako frantziskanoetan zegoen. Konfesatzera joandakoan soldaduei galdeztzen zigun, laugarren agindura joandakoan, ea agintari militarrei obeditzen genien. Lizarralderentzako, herriko agintariak, Euskal Herria, Katalunia, Galizia, guztien eskubideak apurtuaz irabazitako agintariak sakratuak ziren.

Armentiaiko gotzainak ere, Euskal Herria suntsitzeko armen eskubidea zilegitzat dute. Euskal Herriak nazio izateko duen eskubidea

zapaltzen duten armek ez dituzte aipatu ere. Euskal Herriarrek jendeak ala nahi izanez gero nazio izateko duten eskubidea babesten dutenak kondenatu dituzte.

Armentian izango zen gotzain bat edo beste, agertokiaren batean esan duena "Euskal Herriak autodeterminatzeko eskubidea duela" baina, "besteren onari ere begiratu behar diola, Madril, Europa, eta mundu guztiaren onari Euskal Herria irla batean hertsu eta zer".

Hori ez du atera Euskal Herria eraikitzen ari den jendearengandik. Euskal Herria eraiki nahian dabilenak, ez du nahi irla batean hertsitako Euskal Herriak.

Badakit nik gotzain guztiak ez direla horrelakoak, asko eskertzen dut nik Joan XXIII.ren entziklika, 'Bakea lurrean'.

Askotan entzun dut: gotzainen bidez Jaungoikoak herriari mezua bidaltzen diola, hori horrela bada, Jaungoiko askoren eliza katolikoa da hori.

Patxi Otaegi
(Donibane Lohizuna)

Ataunen izan diren azken gora-beheren inguruan hausnarketa

Ataungo Urbieta erretegian, langile bat behar zutela eta herritar neska gazte bat aurkeztu zen lanerako asmoz, bi egun aproba egiten egon ondoren orde, lan orduz kanpo Euskal presoan aldeko kartel bat jartzen ikusi zutelako lana uztera behartu zuten. Bazuen beste aukera bat ere, egia da, Euskal presoekiko zuen konpromezua bertan behera uztea.

Oraingoan taberna honekin eman da kasu hau, baina zoritxarrez badira herrian beste antzeko kasu batzuk ere. Guzti honen aurrean ezker abertzaleak hausnarketa bat eginga badugu ere, herritar orori dei egiten dizuegu zuek ere guzti hau patxadaz azter dezazuen. Berriz ere herritarren batasunerako deia egiten dizuegu guztioi, baina bereziki herritarrongan eragin zuzena duzuen talde, elkarte, enpresari edo pertsonari.

Ez da denbora asko Ataungo Udalak, antolatu zituen jaialdi batzuetarako informazioa herritar askori izkutatu ziola. Egunero, ezker abertzaleko kutxua duten kartel eta propagandak paretetatik ken-

tzen dizkigute, gainerantzeok bertan jarraituz... Guzti honek ondorio latzak ekar ditzazke Ataungo herria eta herritarrontzat. Ataungo herria eraikitzeke egiten genuen deia berrindartu nahi dugu. Ataunen elkarlanean gure herriaren etorkizuna erabakitzeke deia. Eta bide hau, bere botereagatik edo pribilegiozko ardura dutelako oztopatzen duen edonori gerta dakiokenaren arduradun ez gara egiten.

Askatasuna, demokrazia, pakea eta antzeko hitz potoloak hitz hutsak izatetik zerbait izatera eraman ditzagun. Horretan edonork lagun izango gaitu.

Ataungo Ezker Abertzalea.
Mikel Irastorza

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*



Iñaki
Apalategi

Europako behienak

Doinua: Bizkaiko txerriarena

Motibo bat nigana
dago etorria
esplikatu banu
ez barregarria
Europan egin dute
prueba berria
behiei jana ematen
jarri da txerria
horrela gaixotu da
haragi gorria.

Horrela ezin degu
joan urrutira
erdi zentsuratuta
sagardotegira
baina orokorrean
behar da begira
horren gaitz txarra ere
ez degu hau, tira:
begetarianoak
salbatuko dira.

Hemen diela naparrak!

Guda garaian hamaika aldiz oihukatutako esaldia, goikoa, Ataun aldean eta inguruetan. Orduan erreketek eta Francoren aldekoak sartu ziren, sua zeriela, basabideetan barrena eta, adibidez, Beasainen bertan dozena eta erdi inguru hildako eragin zituzten, tartean guardia civil batzuk ere, errepublikaren aldekoak zirela jakin zutenean. Dena den, ezkerreko eta komunisten bila omen zetozen!

Sanzenekoak, berriz, zeren bila ote dabilta? Zergatik ote dabilta horrela? Hauen jokaera ikusiz, behin lankide batek "hemen diela naparrak" oihu egin eta beste lankide batek sano-sano leihotik begiratu zuenekoak datorkit gogora: artalde koskor bat zetorren, zintzarrien dulun-duluna lagun, Oiangurengo zelaletan beeeera.

Badakit orduko hartan artzaina han zela, ez dakit nor zen ordea. Bost axola, ardiek jarraitzen zioten eta! Eguraldi iluna eta euritsuaz gain, ospela. Ilunabarra izaki, ardiak eskorta edo etxe-ordenen batera zeramatzan. Hark agindutako bidean zuzen ez zihoan ardi edo aharikoari, zakurra xaxatzen zion eta bidea gurutze-bide bihurtu, haren letaginek, Joan Cruzi bezalaxe. Hark agindutako lekuan eta garaian larratu behar zuen artaldeak eta baita atsedean hartu ere.

Baina oraingo artzain hau (niretzat aski ezezaguna dena, portzierto), marka guztiak borratzen ari da. Ez du aski ardiak non eta noiz larratu erabakitzearekin, orroa zein hizkuntzatan eta zein sailetan egin behar duten ere berak erabakitzen die, bere eta besteen artaldeei: mendialdean, erdialdean eta erriberan desberdin; badakizue, jaten duenaren arabera izaten du ardiak errapea tira-tira ala zimurturik, oparo ala antzu eta ardiek errapea nola, artzaina hala.

Scrapie gaitzak jotako aberetxo hauek, kasualitatez, gerora adimenez pertsonen mailaraino garatzeko lain izango balira ere, errepideetako idatzizko seinaleak elebakarrez idazteko agindu du, gainera. Horrela, ezingo dute jatorrizko larrerik aurkitu.

Ez daukat ahaztuta Nafarroan badirela beste artalde batzuk. Baita beste inguruko larreetan ere eta, kasu askotan, orroa berdina edo oso antzekoa egiten dutenak gainera. Nik ez ezik, Sanzenean ere ez dute ordea hau ahaztu eta urrutiko larreetan elkarrekin joateko aukera izan duten lehen aldian, zakurrari jaregin dio artzainak eta ardiak eskortan lekutu. Nork daki zer letorkiokeen, bere artaldeari, kutsatze horren ondorio!

Berak, Manchako gazta ekoiztuko du laster eta ez Handi Mendikoa edo Erronkarikoa. Hainbat urteetan erabilitako zintzarri eta dunden lekuan, "pastores venid" kantua darion txip elktronikoa ezarriko, urrutira bereiz dezan otsoen gosea asetzeko erabiliko duen ardi beltz zintzarri duna.

OHARRA: idatzi hau argitaratu aurretik irakurtzeko eskatu diodan lagun batek, hauxe bota dit: "Eta beste artzainak, zertan ari dituk bada?"



Iñaki Murua



Pottoka
KAFETEGIA

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogiltartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA

Autowag, s.a.




☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km **BEASAIN**

iB&i-ONDO
AROTEGIA



Koltxoak
Somierak

Sofak,
altzari mazizkoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gastainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Kateà, 5 **BEASAIN**



Uste da bederatzi emakumetik batek izango duela bularreko minbizia bere bizitzan. Gaixotasun hau izateko joera handiena duten pertsonak emakumeak dira, gizonezketan emakumezkoen aldean oso portzentaia txikietan garatzen baita gaixotasuna.

Arrisku talde garrantzitsuena menopausia inguruan hasten da, eta 70 urte arte gehitzen joaten da. Handik aurrera jaitsi egiten da.

Badago bularreko minbizia izateko edo gazteagotan garatzeko joera handiagoa duen emakume multzo bat, bularreko minbiziaren %15ean heredatu egiten dela gaur egun jakin badakigulako. Hori dela eta detektatu ahal dira gaixotasuna gara-

zteko arrisku handiagoa duten familiak. Gaur egun posible da arrisku-pertsonengan azterian genetikoak egitea eta aldaketa kromosomiko jakin batzuk ba ote dituzten jakitea. Aldaketa kromosomikoak zehazten badira, euren bizitzako momenturen batean gaixotasuna izango dutela ziurtatzen da.

Nork jasaten du?

Bularreko minbizia duen emakumeak, minbiziak eragiten dion beldurra dela-eta, antsietatea eta depresioa jasaten ditu; bere gaixotasunaren pronostikoari buruzko zalantzak ditu, eta bere bizitza arriskuan ikusten du. Guzti horri tratamenduak bularra kentzea exijitzen duela gehitzen badiogu, gaixoak bere burua gorrotatu egiten du, bere autoestima gutxitu egiten da eta feminitatearen galera sentitzen du. Sintomatologia horrek, eta depresiora eramaten duten menopausiako hormona aldaketek, kaos psikikoa eragiten dute patologia hau jasaten duen emakumearengan, eragin negatiboa izanik gaixotasunarekiko duen jarreraren. Gaixotasuna jasaten duten emakume

gehienak bizitzako momenturik aktiboenean daude; beraz, eragin pertsonal nahiz laborala garrantzitsua izaten da.

S.M. de la Asuncion Klinikako tratamendu aintzindaria

S.M. De la Asuncion Klinikako Bular Unitatea aintzindaria izan da, 1993 urteaz geroztik, bularra kendu bezain laster berregiten. Interbentzioa egin eta bularra kendu ondoren, bularra berregitea lortu da, protesien beharrik gabe, gaixoaren ehuna erabilita.

Gaixotasunari aurre egiteko garrantzitsuena informazioa da, diagnostiko goiztiarrera zuzentzen dena, eta jarraian plan kliniko eta erradiologikoa egiten zaie, bereziki herentziaz edo adinez arriskua duten emakumeei.

Kasuen %50etan bularren galera aurreikusten da; hori dela eta, kendutako zatia berregin egiten da, gaixoak sabelean soberan dituen gantzarekin eta azalarekin. Gaixoak beste modu batera har-

tzen du operazioa berregite horrekin, eta gainera oso positibotzat jotzen du bere saibeldearen luzatzea (liffing-a). Estuasunari jarrera hobearrekin egiten dio aurre.

Tolosaldean eta Goierriin bakarrik, urtero 100 gaixo inguru

Urtean 100 gaixo inguru dira Asuncion Klinikara jotzen dutenak, eta horietako %25ek dauka operatu beharra. %50ek biopsiatu beharreko prozesu onberak jasaten ditu, eta gainontzeko gaixoei urtean behingo jarraipenak egiten zaizkie bere diagnostiko goiztiarraren mesedetan.

Gaur egun, zehaztasun handiko mamografoei esker, lehen baino lesio onbera gutxiago operatzen da. Era berean, garai batean kirurgia bidez biopsiatzen ziren lesio asko gaur egun biopsia esterotaxiko ziztadekin konpontzen dira, ingresorik gabe eta anestesiarik gabe. Teknika berri horiei esker prebentzio maila altuagoa lortu da, eta gaixoen aldetiko poztasun maila ere handiagoa da.

Maria Morales



Zorion Insaustiren laguntzar
Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
943 88 13 37
ORDIZIA

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 943 88 60 70

BEASAIN

lues rothers
BEASAIN



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
943 88 11 94
ORDIZIA

Bularreko herentziazko minbiziaren sindromea

Bularreko minbizia garatzeko arrisku faktore epidemiologikorik garrantzitsuena bularreko minbiziko famili historiala da. Bularreko minbiziaren aurrean bi motatako suszeptibilitate genetiko hartzen dira kontuan:

✓ Garrantzitsuena, aldagai alelikoak dituzten gene gutxi batzuk existitzen direnekoa da, gizabanakoari transmisio molde garrantzitsua ematen diotenak.

✓ Gizabanakoari neurrizko arrisku maila ematen dioten aldagai alelikoak dituzten geneak existitzen direnekoa da; ez da familia historial garrantzitsuekin lotzen, tumorea aldi batekoa / unilaterala da eta adinari dago-kionez beranduago garatzen da.

Bularreko herentziazko minbizi kasuen % 45etik 84ra bitartean, BRCA I eta BRCA II deitutako bi suszeptibilitate-gene nagusi-tan nabari dira mutazioak edo aldaketak.

Gainerako % 16tik 33ra bitartean, badi-ru-di suszeptibilitate-gene batean gertatzen dela mutazioa, baina ez da mutaziorik ikusten, ez BRCA Iean, ez BRCA IIan, ezta ezagutzen ditugun beste suszeptibilitate-gene batzuetan ere (ATN, PTEN, EPC).

Orain arte 300 mutazio ezberdin daude erregistratuak BRCA I linea germinalean eta 100dik gora BRCA IIan.

Bularreko eta obarioetako herentziazko minbizia gertatzen da famili historialak bula-rreko minbizia edukitzeko gene oso sarkorra dagoela adirazten digunean.

Bular-obarioiko herentziazko minbizia oso goiz izaten delako bereizten da, 44-54 urteen inguruan alegia, bilateraliterako joera due-lako (%30), ezaugarri mendelianoen trans-

misiogatik eta beste minbizi mota batzue-kin elkartzen delako, bereziki minbizi kolini-koarekin, prostatikoarekin eta pankreatikoa-rekin.

Famili historialean lehen nahiz bigarren mailako bi gizabanako agertzen badira, hau da, bularreko minbizia duen 50 urtetik behe-rako nahiz obarioiko minbizia duen edozein adineko, %10etik 20ra bitarteko probalitatea dago mutazio bat agertzeko.

Bularreko herentziazko minbiziaren diagnosi genetikoak

Diagnosi genetikoak honako kasuei egiten zaie: bularreko minbizia izan eta duten fami-li historiagatik edo oso goiz eduki dutelako gene mutatu heredatu duten susmoepen dauden emakumeei. Hori dela eta BRCA I eta BRCA II geneak aztertzen dira.

Gene horietan mutaziorik ikusten bada, familiako beste kide batzuk azter daitezke mutazio berdina heredatu duten ala ez jakite-ko.

Bere bularreko minbizia herentziazkoa dela ziurtatu ahal izango duen mutazioen bat bilatzeko, BRCA I eta BRCA II geneetan ikerketa bat egiteko aukeren berri eman on-doren, jarraitzen den prozedura honakoa da:

- ✓ Baimena sinatzea.
- ✓ 10 ml-ko odol lagina hartzea.
- ✓ Laguna laborategira bidaltzen da, BRCA I eta BRCA II geneak bere osotasunean azter ditzaten.
- ✓ Emaizta jakinarazten da.

Gene hauen azterketa prozedura nekeza da eta emaitza hartzen denerako sei hilabete pasatzen dira gehienetan.

Euskara txukunean

Arkumeak gora edo behera egin du

Zuzena al da esatea *arku-me*a igo egin da edo *untxia* jaitsi egin da?

Ez, ez da zuzena; izan ere arkumea nora igo da? **Arkumearen prezioak gora egin du** esan nahi da, alegia, eta laburtuz, **arkumeak gora egin du** eta *untxia* ere ez da inora jaitsi **untxiaren prezioak behera egin du** edo **untxiak behera egin du**.

Beraz, ferian edo beste edozein tokitan bezala, produktuek, jeneroek, gora edo behera egiten dute, baserritarrentzat behera eta erosleen poltsi-korako gora berriz.

Maizpide Euskaltegia

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN



Kubako bidaietan berezitasuna

Bilbotik-Habanara
hegaldia bakarrik
88.000 pta.
(Otsailaren 10etik
martxoaren 30era)

Eloegi, 17 LAZKAO

Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971

e-posta: algoz@wanadoo.es



Ordenagailuen

- ✓ Salmenta
- ✓ Konponketa
- ✓ Sareak
- ✓ Programazioa zure neurria

Urdaneta, 8 ☎ 943 16 04 11 ORDIZIA
E-posta: infonetordizia@terra.es



XENKEGI
ETXE-AROKINTZA
Diseinuak neurria

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak

BEASAIN



- Haragia lasai jan al dezakegu?

- Bai, bai. Orain txekor guztiak hil aurretik albaiteoak ikusi eta zertifikatu beharra du. Azken 10 urteetan egon den kontrol handiena dago orain. Gainera hemen beti egon da kontrol handia. Orain, nik beti esan dut kanpotik datozen txuleta horiek ez direla natural hazitakoak. Hainbeste grasa duenak hain gozo gutxi izateko zerbait badute. Gu oso haragizaleak gara. Nik harategia jarri dudanetik ez dut uste nik hainbat haragi jan duenik izango denik.

- Orain behiki gutxiago saltzen al da?

- Zertxobait bai. Ez prentsan esaten den %30a, baina zerbait gutxiago saltzen da. Oraindik gutxiago labelean sartuta daudenak nabaritu zuten. Albaiteo bati lehengoan entzun nion, Euskal Herrian kontrol handia badago ere, labelean oraindik zertxobait gehiago dagoela. Gehiago ganadu zaharra saltzen zuenak nabaritu zuela pentsatzen dut.

- Odolkiarekin ez duzue arazorik izango.

- Ez, alderantziz, Beasaingo lehiaketa irabazi genuenez geroztik asko saltzen dugu.

- Saria nabari da beraz.

- Guk lehen ez genuen sinesten salmenta hainbeste igotzen zenik. Bai odolkia eta bai mondejua asko egiten dugu. Orain kanpotik ere jendea etortzen da espreski odolkiak erostera. Alde batetik kofradiaren bidez Madril edo Bartzelonatik etortzen dira, baina partikularrak Gipuzkoa guztitik etortzen zaizkigu. Aste batean 400 kilo egitera iritsi gara, hori ondo preparatuta dagoenarentzat ez da asko, baina harategi txiki baterako lan handia da.

- Zein da odolki ona egitearen sekretua?

- Sukaldaritzan orokorrean bezala garrantzitsua da maitasun handiarekin egitea. Berdurea ondo egin behar da, gozatu egin behar da, hor dago sekretua. Gainera ondo eginda ondoren gutxiago errepikatzen du.

- Lehiaketetarako odolki bereziak egiten al dituzue?

- Guri lehen ere esaten ziguten odolgi onak egiten genituela, baina guk saririk ez genuela irabazten erantzuten genien. Orduan askoz espezie gutxiago botatzen nien, eta kofradian dudak arrebak esaten zidan ez nuela irabaziko espezie gehiago bota ezean. Horrela hasi nintzen espezie gehiago botatzen eta baita saria irabazi ere.

- Odolkia Beasaingoa al da?

- Bertan sortu zuten kofradia eta lehiaketa egiten hasi ziren, horrek izena eman dio. Baina hemen inguruan berdintsu egiten dira odolkiak. Beasain eta Ormaiztegiako ateratzen dituzte sari gehien, urte asko baidaramatzate txapelketetara aurkeztu. Ordizian 20 harakinetatik 4 bakarrik aurkeztu ginen, horrela saria ateratzeko aukerak jaitsi egiten dira.



Manuel Barandiaran
Lutxi Arratibel
Harakinak

YOSUTHERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK

- PVC leihoak
- Aluminiozko hausdura termikodun leihoak
- Aroztegi mistoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Erakusketa
Ipiñarieta, 3
☎ 943 725 232 **URRETXU**
Fabrikatik zuzenean
Kataide industrialdea, 4 pab.
☎ 943 770 157 **ARRASATE**

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
☒ Depresioak ☒ Beldurrak
☒ Harremanetarako arazoak ☒ Antsiak
☒ Segurtasun eza
Ordutegi eskatu konpromisurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. **BEASAIN**

X A X O
KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

HORTZ KLINIKA

Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.
Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia
San Ignazio, 8 B - 2. ez.
☎ 943 88 92 87 BEASAIN

Goierri turismo eskaintza sendotuz

Turismo foileto berriak kaleratu dira

Ekimen pribatuak bat egin zuen iazko urtean erakunde publikoekin, Goierri turismoa bultzatzeko egitasmoan, Goitur sortuz. Urtebete pasatu den honetan, gero eta gehiago dira Goierri ezagutzera datozen turistak eta eskualdean, turismoaren alde apustu egiten ari direnak. Material berria argitaratu du Goiturrek, logotipo berriarekin batera. 2001 urterako asmoak kontatu dizkigu Goiturreko Nikolas Osinaldek.

Itxura berriturik argitaratu dira Goierri buruzko foiletoak, orain artekoa egituratu eta 'Zazpi egun eta zerbait gehiago' izenburupean. Batean, Goierri egin daitezkeen zazpi ibilbide turistiko zehazten dira. Besteetan, festa eta jaien zerrendaz gain, Goitur osatzen duten establezimenduen helbide eta telefonoak biltzen dia. Martxoaren lehenengo egunetan



egingo da foiletoen aurkezpen publikoa. Nikolas Osinaldek adierazi digunez, "orain arte destino bezala saldu da Goierri, baina hemendik aurrera, foileto hauekin, produktu bezala. Mendiko ibilbideen eta mendiko bizikletaren ibilbideen liburuxkekin osatua dugu Goierriko produktua".

20.000 alena argitaratu dira. Goierri ezagutzera ematen jarraitzeko, ohi bezala, Espainiako estatuan izango diren turismo azoketara joango dira Goiturrekoak. Aste honetan adibidez, Madrilgo

Fiturren izan dira. Urrutirago ere iritsiko da aurtengo Goierriren berri. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren barruan dagoen Spiren bidez, Europa eta Estatu Batuetara iritsiko baitira foiletoak.

Logotipo berria

Logotipo berria du Goiturrek aurtengo. Informazio gunea adierazten duen 'i' gehitu diote. Honela, Goiturren barruan sartuta dauden establezimendu guztietan ikurra agerian jarriko da, bertan, Goierri buruzko turismo informazioa eskuratu daitekeela adieraziz. Mugimendurik gehien dagoen leku turistikoetan, panelak ere jarriko dira.

Bidaia agentziak

Bidaia agentzien bitartez, familiariei, Goierri etortzeko aukera eskainiko zaie. Urte guztian zehar landu beharreko arloa izango da Goiturrentzat. Osinaldek jakitera eman digunez, "bidaia agentzietako tour-operadoreak ekartzeko asmoa daukagu Goierri ezagutzera. Euskadi gehiena saltzen den bidaia agentzietako langileak eka-

Eskualde izaera

1998-1999ko Euskadiko merkatu turistikoari buruzko txosten bat iritsi zaigu eta bertan azaltzen denez, eskualdeko izaera adierazten duen 'Goierri' marka daukan bakarra da Goierri. Turismoa gehien dinamizatu duen Euskadiko barruko eskualdea izan da Goierri. Produktua duen Euskadiko eskualde bakarra. Bizkaiko Enkarterriekin parekatzen gaituzte.

rrri nahi ditugu Goierri ezagutzera. Orain arte ez da horrelakorik egin, alojamendu arazoagatik".

Iaz Espainiako estatuko egunkari nagusietako kazetariak ere gonbidatu zituzten Goierri, eskualdea ezagutu eta gure berri zabal dezaten. Ekimena ondo atera zenez, aurtengo kazetariak ekartzeko asmoa dago, maiatz eta irail aldera.

Internet

Internet ere oso baliagarria da informazioa zabaltzeko. Orrialde berria laster jarriko da sarean, <http://www.goierri.org> helbidean. Bertan eskura izango da Goierri buruzko informazio guztia, baita mendiko ibilaldien informazioa eta mendiko bizikleten ibilbideak ere.

Edozein iradokizun edo galdera egin nahi dela, beste e-posta bat ere badago: nosinalde@udal.gipuzkoa.net.

Goiturreko kideei Interneti buruzko ikastaroa emango zaie, Internetaren berri izan dezaten.

Urtebeteko balorazioa: baikorra

Goiturrek urtebeteko balorazio baikorra egiten du. "Ekimen pribatua sartu da turismo arloan. Euskadin era honetako lehenengo ekimena izan da. Dirudienez, jendea turismoan sinisten hasi da, zenbait udal ere bai. Erakunde publikoak eta pribatuak sinisten hasi dira eta hori oso baikorra da. Goiturren gero eta bazkide gehiago. Turismoan sinisten dutenak daude Goiturren", esan digu Nikolas Osinaldek.

Logelei dagokienez ere, gero eta aukera zabalagoa dago Goierri. 2001. urtearen amaierarako, bikoiztu egingo da orain arteko logela kopurua; 700 bat ohe izatea espero dute.

Turistei etxebizitzak alokatzen ere hasi nahi dute Goiturrekoek, nahiz eta oraindik horretarako mentaliterik ez dagoen eskualdean. Zegaman hasiak dira ekimen honekin.



'Garena Garela. Etorkizunean gaudela' hitzaldi zikloa

Txepetx, Atxaga, Arizkorreta eta Etxenike hizlari

Otsailaren 19tik 23ra, hitzaldi ziklo berezia izango da Beasaingo Usurbe Antzokian, iluntzeko 7,30etan. Jose M. Sanchez Carrión 'Txepetx' hizkuntzalariak, Bernardo Atxaga idazleak, Andres Arizkorreta CAFeko zuzendariak eta Pedro Mikel Etxenike fisikariak, ordu bete - ordu t'erdiko hitzaldiak eskainiko dituzte. Azkeneko egunean, Kilometroak 2001eko kantaren aurkezpena egingo du Ur da Lur musika taldeak. Azkenik, web orria ere aurkeztuko da, Argia astekariarekin elkarlanean.

Kilometroak 2001en barruan, Andramendi Beasaingo Ikastolak, Ikastolen Elkartearekin batera, ikastolek hizkuntzaren, gizartearen zein hezkuntzaren garapenean izandako eragina ikusita, hausnarketarako beta hartu eta hezkuntza-eredu berri-tzaile honen urratsak etorkizunerantz nola bideratu aztertu nahi dute. Honela, otsailaren 19tik 23ra kultur aste berezia antolatu da, 'Garena garela, Etorkizunean gaudela' lema-pean. Kultur aste honen ardatza garrantzia handiko hitzaldi-sorta da. Euskal kultura eta gizartean itzal handia duten pentsalariarekin abiatuko da euskal gizartearen etorkizuneko norabideei buruzko hausnarketa. Lau hizlarietatik bi gainera, euskaldunberriak dira, Jose M. Sanchez Carrión 'Txepetx' eta Pedro Migel Etxenike. Kilometroak 2001en helburuetariko bat, erdal hitzunengan euskara ikasteko motibazioa piztea da eta kasu honetan bi euskaldunberri jarri dituzte hizlari eta adibide emale.

Asteari amaiera, Kilometroak 2001eko kantaren aurkezpena egingo du Ur da Lur taldeak eta Argia astekariari esker egindako web orria jendaurrean erakutsiko da.

CAFek eta Kutxak babesten dute hitzaldi zikloa. Lagundu berriz, Beasaingo Udalak eta Artzai-Eneak.

Hitzaldiak


Beasaingo Usurbe Antzokian, arratsaldeko 7,30etan izango dira hitzaldi guztiak.

✓ **Otsailak 19, astelehena: Jose M. Sanchez Carrión 'Txepetx'** soziolinguista, antropologo eta ikerlariaren hitzaldia. Jose M. Sanchez Carriónen lanik ezagunena "Un futuro para nuestro pasado" izenekoa da. Saio honetan, "Euskararen komunikazioa nola landu" izango du hizpide, eta aldi berean, Bizi & Hitza fundazioaren berri emango digu.

Jose M. Sanchez Carrión 'Txepetx' hizkuntzalari, antropologo eta artikulugilea, soziolinguistikari aditua da. Euskal Herrian finkatua (Cartagenan jaioa 1952an). Granadan euskara ikasi eta Zarautzen bizi izan zen Basarri bertsolariarekin. Euskararen egoera aztertzen Nafarroa osoan ibili zen.

✓ **Otsailak 20, asteartea: Bernardo Atxaga** idazle eta pentsalari asteasuarraren hitzaldia izango da. Bernardo Atxaga da garai guztietako euskal idazlerik ezagun eta itzuliena. Hizkuntzen arteko harremanak euskal hitzun eta sortzaile baten ikuspegitik aztertuko ditu.

Joseba Irazu 'Bernardo Atxaga', idazlea bada ere, aurrena ekonomia ikasi zuen. Ez dago euskaraz jorratu



ez duen literatur-jenerorik: nobela, ipuina, haur-literatura, artikulak edo poesia. Bere libururik ezagunak 'Obabakoak' eta 'Behi euskaldun baten memoriak' dira. Bere azken lana 'Hitzez beste' da.

✓ **Otsailak 21, asteazkena: Andres Arizkorreta**, CAF entresakako zuzendari orokorraren hitzaldia izango dugu. "Ezagutzaren gizarterantz", giza-harremanak, emozioak, baloreak... nola aldatu diren eta noruntz doazen aztertuz bai lan-munduan, bai gizartean.

Andres Arizkorreta Donostian jaio zen 1956an. Ekonomian lizentziatua da eta 1980az geroztik CAFen lanean dabil bertako ardura maila ezberdinetan aritu da lanean. Egun, zuzendari orokorra da eta Administrazio Kontseiluko kidea da. Ezagutzaren klusterreko lehendakaria da eta Madrileko 'Perfeccionamiento de Alta Dirección de Empresas' ikastetxe-ko irakaslea eta Euskararen Kontseiluko kidea da.



Kilometroak 2001 kanta: Ur da Lur taldearena



✓ **Otsailak 22, osteguna: Pedro Migel Etxenike**, fisikari nafarraren hitzaldia izango da. Hitzaldi hau gaztelaraz izango da, eta gaia "Zientzia, ekonomia eta gizartea" izango da. Zientziaren bilakaerak gizartean eta giza-harremanetan duen eragina aztertuko da.

Pedro Migel Etxenike fisikari nafarra izaban jaio zen 1951n. Estatu Batuetan fisikako ikasketak egin eta Suedia, Britainia Handia eta Estatu Batuetako zenbait unibertsitatetan irakasle izan da. Estatu Batuetako zenbait laborategitan lan egin ondoren, 1990az geroztik American Physical Societyko kide da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua eta bozermailea izan zen (1980). EHUko irakaslea da.

✓ **Otsailak 23, ostirala:** Andramendi, Beasaingo Ikastolaren eta Kilometroak 2001ekoen aurkezpena izango da. Bertan izango da, 'Ur da Lur' taldea, Kilometroak 2001eko kantuaren egilea, eta baita Argia astekariko laguntzaileak ere, Web orriaren diseinatzaileak.

Ur da Lur taldearen kantua da aurtengo Kilometroak jaiaren kan-

ta. Hitzak, berriz, Tere Irastortzarena. Sakanako taldea da Ur da Lur. Itziar eta Erkuden Flores, Luis Kintana eta J.M. Arzelusek osatzen dute taldea. Nafarroako Euskal Kantu txapelketako lehen saria jasozuen taldeak. Luis Camino, Pello Ramirez eta Izaro Garmendia musikariak ere lagun izango ditu Kilometroak-en kantuak.

Garena Garela: sortzeko izan, izateko sortu

- | | |
|--|---|
| 1.-
Hizkuntzarik zaharrena
eta hitzik ederrenak,
Marik eskeini zituen
ametsik gozoenak.
Nahi dugu sortzeko izan
Eta izateko sortu. | 4.-
Elurra eskuetan,
sumina bihotzean,
dardar zegoen euskara
erdal ezpainetan.
Nahi dugu sortzeko izan
eta izateko sortu. |
| 2.-
Txikiaren indarra
atomo eta haziarena
Euskararen garra
esan ta izanarena
Nola amestu ez garena
Nola izan ez ginena? | 5.-
Hodeiak zeruan
eta hostoak aidean,
Andramendiren altzoan
Ikastolako umeak.
Nola amestu ez garena
Nola izan ez ginena? |
| 3.-
Garena Garela
Sortzeko garela,
Kilometroetan
Garena garela,
Garena garela,
Beasainen gaudela. | 6.-
Garena garela
Sortzeko garela,
Kilometroetan
Garena garela,
Garena garela,
Beasainen gaudela. |



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.

Tel/fax 943 88 96 17

E-posta: beasain@ikastola.net

Industrialdea handitzeko lanak martxan



Guardiko Industrialdea handitzeko lanak martxan daude eta udarako bukatuta egongo dira. 30 mila metro karratu berri erantsiko dizkiote oraingo eremuari, bertan industria gehiago jarri ahal izateko. Lanak, Udalaren babesean eratutako Guardi-gain S.A. enpresa ari da egiten.

Proiektuan jasota dagoenez, industriak jartzeko pabiloiez gain, 2.500 metro ka-

rratu egokituko dira bestelako azpiegiturak jartzeko (jaketxea, hotela...). Horrezaz gain, hainbat industriren beharri erantzun nahian (zer-rategiak, marmol taillerak...) pabilioi batzuk, alboan lur saila ere izango dute.

Lanak bukatutakoan, Guardiko Industrialdeak, 60 mila metro karratu izango ditu guztira. Bertan jarritako industrietan, 500 lanpostutik

gora sortuko dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiak gainera, Idiazabaldik Guardirako errepidea hobetzeko lanak berehala hasikoditu. Jeronimoeneko kruzetik Segura bitartean errepidea zabaldu eta egokitu egingo dute. (Informazio gehiago nahi duenak 943187100/943731214).

Etxegarate

Etxegarate bikoizteko proiektuan Diputazioak egindako aldaketak direla eta aurreikusitakoa baino 650 milioi gehiago ordaindu beharko dira eta lanak datorren urtearen hasieran bukatuko dira. Hala jakinarazi zuen Antton Jaime Errepide diputatuak Gipuzkoako Batzarn

Nagusien aurrean Etxegarateko lanen berri emateko egindako agerrialdian.

Antton Jaimek jakitera eman zuenez, goranzko bidean Diputazioak honoko aldaketak egin ditu proiektuan: aurreikusita zegoen zubibidearen (biaduktoaren) ordeztu orain Ursuaran parean lurrez betetzen ari diren lubeta erabiltzea bide berria egiteko; leku horretan, Ursuaranarako sarrera-irteerak egokitzea ere jaso dute; azkenik proiektuan, Etxegarate gaina zeharkatzeko agertzen den tunel bakarraren ordeztu, bi tunel artifizial egitea du orain aurreikusita Diptazioak.

Xabier Urteaga

Bielorrusiako haurrak

Aurtengo udan, Idiazabala Bielorrusiako neska-mutikoak ekartzeko ekimenari abian da. Gaur (otsailak 9) bukatzen da izena emateko epea. Epez kanpo dabilenari, gehienez ere, otsailaren erdialdera bitartean eskaria egiteko aukera emango zaio.

Iaz etorri ziren lehendabiziko aldiz Bielorrusiako neska-mutikoak Idiazabala. Aguraingo (Araba) Izaki Gobernuz Kanpoko Erakundearen laguntzarekin egin zen orduan, eta aurtun ere elkarlanean antolatuko da egonaldia. Goierri alde-za zapi neska-mutiko etorri ziren. Bost Idiazabala, eta bana Zegama eta Ormaiztegiara. Iaz haurrak etxean hartutako fami-lik, aurtun ere badute horretarako asmoa. Neska-mutiko horiek hartzerik ez duten hainbat idiazabaldar ere laguntzeko prest dago. Ekonomikoki haur horiei laguntzeko proposame-na egin dute Udaleko Gizarte zerbitzuetan. Hori nola bideratu aztertzen ari dira.

Gazteen lokalaren inaugurazioa

Gazteek Kultur Etxearen beheko solairuan duten lokal berria inauguratzeko festa antolatu dute otsailaren 10erako. Osagai nagusia, gaueko 11etatik aurrera Igarondo pilotalekuan egingo den kontzertua da. Anestesia, Anger eta Leher taldeak izango dira. Aurretik, afaria dago antolatuta. Kontzerturako sarrerak 800 pezetan daude salgai, afarirako txartela eta sarrera erosteko modua ere badago 1.700 pezetan.

Mus txapelketa Aitz-Buru elkarteetan

Otsailaren 24rako antolatu du Aitz-Buru elkarteak mus txapelketa. Arratsaldeko 4etan emango zaio hasiera.

Jarri den baldintza bakarra bikoteko pertsona bat mutiloarra edo elkarte-ko bazkide izatea da.

Iñaki Ugalde

Zaharkinak proiektua martxan

Aurten zegamarrok gure herriko ondarearen berreskupe-nerako balioko duen proiektu garrantzitsu bat dugu eskuartean: Zaharkinak.

Zaharkinak proiektuaren helburua gure herriko tresnak, bai abeltzantzari, bai nekazaritzari, bai artzantzari e.a. loturikoak edota baita etxe tresnak ere, azken finean bizimodu desberdinak isladatzen dituen tresna eta altzari desberdinak, identifikatzea, baloratzea, gordetzea eta

iraunaraztea delarik; gure kulturaren zati garrantzitsu bat gordetzea azken finean.

Proiektu hau burutzeko herritarren laguntza behar dugu, besteak beste baserrietara bisitak egin ditzaten fitxa batzuk bete eta argazkiak ateraz.

Guzti hau antolatu asmoz, Arantzadi Zientzia Elkarteak Etnografi Departamentuko eta proiektu honen asmatzaile den Fermin Leizaolaren gida-



ritza izango dugu.

Zaharkinak proiektua Zegamako Udalak, Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuarekin egindako hitzarmen bati esker gauzatu-ko da, aldi berean Foru Aldundiak Arantzadi Zientzia Elkartearekin elkarlan hitzarmena duelarik proiektu hau

babesteko.

Gai hau zegamarroi azaldu asmoz, datorren otsailaren 21ean, iluntzeko 19:00etan, Fermin Leizaola Jaunak berak, proiektuaren nondik norakoak azalduko ditu Udaltxean.

Eduarne Albizu

Herria obratan

2001. urtean Zegaman obra garrantzitsuak izango ditugu.

● Dagoenerako Santa Barbara Kanean saneamentu obrak aurrera doaz eta hilabete batean kale hori itxita egongo da kotxeentzat.

● Babes Ofizialeko etxeak ere eraikitzen hasteko aurre prestaketak hasiak ditu Saiatu Enpresak, joan den urtarrilaren 30ean bota zuten Olarango Eskola Zaharra, berau 70. hamarkada ezkerreko zegamar askoren ikastoki izan zelarik; berarekin Zegamaren historiaren zati bat eraman badu ere, gure artean oroi-
men ugari geratu dira dudarik gabe.

Dirulaguntzak

Zegamako Udalak, bai El Salvador eta bai Indiari ere, izan ditzuten ondamendi larriak direla eta, bere laguntzatxoa eman asmoz, herrialde bakoitzari 50.000 pztako dirulaguntza bidaltzea erabaki du.

Oporrak bakean 2001

Urtero bezala, Saharako haurrek gure artean oporrak pasa ahal izateko Polisario Fronteak Euskadin duen delegaritzatik jakinerazi zaigu Saharako haurrak udako oporretan (uztaila eta abuztua) etxean hartuko litzuketen familiak behar direla. Beraz, interesik izango bazenu jar zaitez Udaletxeko Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan otsailaren 23 aurretik. (Begoña)

Minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia

Datorren otsailaren 12an, arratsaldeko 6etan "Minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia" izango dugu Kultur Etxean. Hizlariak, Estitxu Fernandez eta Josune Alkaiaga, Minbiziaren aurkako Elkarteko kideak izango dira.

Labur-labur

Ikastaroak

● **Erretzeari uzteko ikastaroa:** Udaletxeko Gizarte Ongizate sailetik, iazko arrakasta ikusirik, aurten ere erretzeari uzteko ikastaroa antolatu da. Ikastaroa otsailaren 27an hasiko da eta izenematea Udaletxean egin behar da otsailaren 21 bitartean. Telefonoa 943 801351 (Begoña, Arantxa).

● **Esku pilota Eskola:** Eskupelotan ikasi nahi duenak ere aukera egokia du, izan ere Udal Kiroldegian, esku pilotako ikastaroak martxan hasi baitira. Izenematea Udaletxean egin behar da edota 943 801351 telefonora deituz (Eduarne); esan haur, gaztetxo nahiz helduentzat dagoela irekita ikastaro hau.

● **Bertso ikastaroa:** Kultur Etxeko Batzordeak ere, Bertso ikastaroa antolatzeko asmoa du gutxieneko taldea sortzen bada. Interesa duenak izena eman beza Udaletxean edota 943 801351 telefonoan (Eduarne).

Amezti mendi elkartearekin eskiatzera

Otsailaren 10ean, Amezti Mendi Elkartek antolaturik Zegamatik autobuskada bat joango da Kandantxu aldera eskiatzera.

Bestalde datorren otsailaren 18an ere mendi irteera du antolatuta Mendi Elkartek, oraingoan, Elosu-Karakate-Elosu ibilaldia egiteko asmoa dute eta irteera goizeko 8etan izango da Zegamako Plazatik.

Igandean pelikula

Guraso Elkartek antolaturik, otsailaren 11n, arratsaldeko 17:00etan "Bichos" filmea botako da Kultur Etxean.

XI. Beasain idazlehiaketako sariak banatu dira

Udaleko Euskara-batzordeak antolatutako XI. Beasain Idazlan lehiaketaren sariematea otsailaren 3an egin zen Udaletxeko Batzar Aretoan. 5 mailatan banatu da lehiaketa eta euskualdeko ikastetxeetako 1983tik 1988ra bitartean jaiotako ikasleek hartu dute parte. Ikastetxeetan lehen hautaketa egin ondoren, 161 idazlan izan dira Udaletxera iritsiak, eta 26 sarituak.

Epaimahaia osatu dutenak, lehenengo 3 mailatan, Migel Anjel Mintegi Larraza, Idurre Eskisabel Larrañaga eta Patxi Saez izan dira eta beste bietan, Gabino Murua, Jexux Aizpurua eta Begoña Iartza.

● A mailan, 1983-1984an jaiotakoak:

Olerkian: Irati Goikoe-txea (Txindoki-Alkartasuna Institutua). 2. saria ez ematea erabaki zuten. Beste lau sari jaso zituzten, Saioa Otegi (Jakintza), Irati Arostegi (Txindoki-Alkartasuna), Itziar Zubiaurre (Txindoki-Alkartasuna) eta Amagoia Lekuonak (Txindoki-Alkartasuna).

Hitz lauz: 1. saria, Oroitz Maizek (Txindoki-Alkartasuna). 2. saria, Elorri Sarasola (Jakintza) eta 3. saria Arantazu Muñoz (Txindoki-Alkartasuna). Beste 4 sari ondorengoentzat izan ziren: Jakintza Ikastolako Ainhoa Mujika eta Oihane Zarragarentzat eta Txindoki-Alkartasuna Institutuko Irati Goikoe-txea eta Eider Lopetegirentzat.

● B mailan, 1985-1986an jaiotakoak:

1. saria Eñat Sarriegi (Alkartasuna Lizoea). 2. saria Unai Estala (San Benito) eta 3. saria Nerea Barrutia (Be-



saingo Ikastola). Beste lau sari ondorengoentzat: Beñat Auzmendi (Alkartasuna Lizoea), Anaitz Goia eta Ane Azurmendi (Loinazpe), eta Ekaitz Arruti (Jakintza).

● D mailan, 1987-1988an jaiotakoak:

1. saria Garazi Auzmendi (Alkartasuna Lizoea). 2. saria Janire Arrondo (Beasaingo Ikastola) eta 3. saria Amagoia Aiestaran (Loinazpe). Beste lau sari banatu zituzten lagun hauen artean: Leire Lasa eta Josu Imaz (Alkartasuna Lizoea), Arantxa Litago, (Loinazpe) eta Begoña Garrido (La Salle-San Jose).

● E mailan, 1989 eta 1990an jaiotakoak:

Aritz Aranburu (Beasaingo Ikastola), Iñaki Iparragirre (La Salle-San Jose ikastetxea) eta Jon Begiristain (Beasaingo Ikastola). Beste lau sari ere banatu ziren: Alain Aiestaran (Beasaingo Ikastola), Naroa Abelabide (Beasaingo Ikastola), Eli Zaldua (Alkartasuna Lizoea) eta Naiara Ugartemendia (Murmendi ikastetxea).

● F mailan, 1991 eta 1992an jaiotakoak:

Maddalen Urdangarin Telleria (Beasaingo Ikastola), Xabier Meabe (Beasaingo ikastola) eta Enara Salvador (Murmendi ikastetxea).

Nekane Altuna

Mendiko argazki lehiaketa

Argizpi Argazkizale Elkar-teak eta Aizkorri Mendizale Elkartek, II. Mendiko Argazki Lehiaketa Igartza Saria jarri dute martxan dagoeneko. Lehiaketa hone-tan, lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte eta gaia mendia izango da.

Argazkiak gehienez ere 30X40 zm.ko kartoiez sendotuak aurkeztu behar dira. Teknika eta aurkezteko moduari dagokionez askatasun osoa dago. Argazkiak otsailaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira bi elkarte hauetakoren batean. Sarietarako dagokionez, lehenengoak 25.000 pezeta eramango ditu, bigarrenak 20.000 pezeta eta hirugarrenak 15.000. Elkarteko edo herriko sari berezi bat ere banatuko da, 15.000 pezetakoa. Irabazle ateratzen diren argazkiak Usur-be Antzokian erakutsiko dira, martxoaren 16tik 25ra.

H.H.I.K matrikula epea zabalik

Ikastetxe publikoa eta dohakoa den Helduen Hezkuntzak, Memoriari buruzko ikastaroa antolatu du otsailaren 19tik 23ra. Memoriaren trastornoak, memoria eta ahaztura eta memorizatzeko metodoak landuko dituzte.

2. lau-hilabeteko matrikula epea gaur amaituko da. Lehen Hezkuntzako maila guztiak, bigarren hezkuntzako titulu ofiziala, 25 urtetik gorakoentzat Unibertsitaterako sarrera eta LHI - Klinika laguntzaile titulurako prestaketan ere laguntzen dute.

1517 biztanle herrian

Pasa den urtean Zaldibia-ko herriaren biztanleriak behera egin du, azken urteotako joerari jarraituz. Iaz baino 20 biztanle gutxiago gara herrian. Datu aipagarri bezala herritik joan diren 52 herrita-

rrena dugu --azken urteotako kopururik handiena--, nahiz eta beste 35 etorri diren gure artera. Bakoitzak atera ditzala kontuak!

Iñaki Gurrutxaga - Saroi Jauregi

Urtea	Joanak	etorriak	hilak	jaioak	biztanleak
1991	8	3	16	9	1574
1992	41	19	9	11	1559
1993	29	14	5	10	1545
1994	24	42	14	20	1571
1995	34	30	13	13	
1996	24	30	20	15	1572
1997	35	26	22	9	1550
1998	35	28	19	20	1554
1999	37	24	16	12	1537
2000	52	35	14	11	1517
guztira	319	251	148	130	



herri bizkaitar honetan ospatu zen 42. edizioko pilota txapelketan. Segi holaxe, mutilek!

Hasiera ona urte berriari

Urte hasiera bikaina izan da aurtengoa Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga pilotari gazteenzat. Urtarrilaren 26an jokatu zen finalean 22-18 gailendu ziren Martinez de Irujo eta Mendi-gurenen aurrean. Lezaman jokatu zen partida oso orekatua izan zen, eta bukaera partean bitantoz atzetik (16-18) izan baziren ere, azkenean, zaldibitar pilotariaren joko sendoak garai-kurra eman zien

Santa eskea: 250.000 pezeta

Santa Ageda bezperan berrogeiren bat lagunez osatutako talde bat Santa eskean ibili zen, herriko baserri eta etxe guztietara iritsi ziren beraien kantu, koplak eta trikiti doinuekin bazter guztiak alaituz. Ohitura zahar hau herritarrek oso gustuko dutela nabarmen geratu zen aurtengoan ere,

izan ere eskuzabal erantzun zuten eta 250.000 pezetako diru kopurua bildu zen.

Diru hau, aurrez erabakita zegoen bezala El Salvadorre-
ra bidaliko da, bertan lur jauzi baten ondorioz izan zituzten kalteak konpontzen laguntzeko.

Mus txapelketa

Urtarrilaren 27an Liztormendi elkartearen jokatu zen mus txapelketan, hamalau bikotek parte hartu zuten. Arratsalde osoan lehiatu ondoren Zegamako Joxe Migel Berasategi eta Joxe Luis Perez izan ziren irabazle.

Herri eskola

Zeraingo Herri eskolan, matrikula berriak egiteko epea irekita dago. Interesa daukanak, eskolan bertan informazioa eta matrikula orria jaso ahal izango ditu.

Liztormendi elkarte

Liztormendi elkartearen urteko batzarra, otsailak 18, igandea, eguerdiko 11,30etan izango da.

Mari Flor Mendizabal

155.560 pezeta El Salvadorrerako

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera era berezi batean ospatu zen Legorretan. Lehenik, Ugaro Eskolako abesbatzako eta Ordiziako Musika eskolako txistulariak herrian zehar kantari ibili ziren kopla

zaharrak gogora ekarriz.

Ondoren, herri pilotalekuan herriko hainbat emakumek eginiko lanari esker, ta-loak jateko eta txokolate beroa edateko aukera ere izan zen.

Afaria Pakoren alde

Otsailaren 16an, gaueko bederatzieta, afaria egingo da Bilkoin Elkartean Pako Eskisabel preso legorretarraren alde. Afari honen xedea egunero-egunero Pakok Euskaldunon Egunkaria jaso ahal izateko dirua lortzea da. Ekimen honetan afariaz gain, bertsolari eta trikitilariak ere izango dira giroa alaitzen. Parte hartu nahi dutenek hilaren 14a baino lehen Oloso tabernan izena eman dezakete.



Santa Ageda eskean El Salvadorrerako dirua bildu zen.

Tradizioz beteriko egun hau gogora ekartzeaz gain, El Salvadorreko kaltetuentzat dirua lortzea zen Udalak eta Guraso Elkarrekin antolatutako festa honen helburua.

Antolatzaileak oso gustora geratu dira emaitzarekin. Izan ere, herritaren partehar-

tzearen ondorioz, guztira 155.560 pezeta lortu dira. Bide batez, arduradunek aurrerantzean egun hau ospatzen jarraitzeko asmoa adierazi dute.

Inko Mujika
Laida Oiarbide

Itsasondoko txirrindularien erakustaldi bikaina

Asteburu oparoa igaro berri dute Mikel Gaztañaga eta Zugaitz Ayuso Itsasondoko txirrindulari gazteek. Punta-puntako txirrindulari profesionalekin lehiatu behar izan zuten biek eta bakoitzak bere arloan maila izugarria erakutsi zuen.

Mikel Gaztañaga

Mikel Gaztañagak Donostiako Anoetako Belodromoan jokatu ziren Euskadiko Sei Orduetan parte hartu zuen otsailaren 3an. Belodromoan bildu zen jendetzaren aurrean erakustaldi bikaina egin zuen Gaztañagak eta mundu mailako txirrindulari onenei ere aurre hartu zien hainbat probetan.



Indar eta trebetasun handiz hasierako postuetan egon zen eta amaieran sprint on bati esker keirin eta abiadura probetan garaile irten zen. Keirin proban Alonso eta Risiren aurretik heldu zen helmugara. Abiadura proban



berriz, Villa eta Baffiren aurretik. Bai ikusleak eta baita txirrindulariak ere aho bete hortz geratu ziren itsasondorarak egindako lanarekin eta harmailetakoa jendea zutik jartzea lortu zuen.

Zugaitz Ayuso

Zugaitz Ayusok ere ez zuen lan makala egin Taborko Munduko ziklo-kros txapelketan. Ayusok gizonezkoen 23 urtez azpikoen proban parte hartu zuen eta lehen postuak eskuratu ez zituen arren, proba amaitzea lortu zuen. Ia 23.000 metroko ibilbidea egin ondoren, 47. heldu zen helmugara, irabazlearengandik 6 minutu eta 52 segundura.

Nagore Etxeberria

Internet zerbitzua dohainik liburutegian

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2003. urterako gipuzkoarrek Interneterako doako sarrera izatea nahi du, 'Net txartela'-ri esker. Hori dela eta, Gipuzkoako hiru herritan, esperientzia pilotuak egingo dituzte, tartean Ordizian.

Herrian errolatua egon eta udaletxean txartela lortu behar da. 12 urte baino gehiago edukitzea da bigarren baldintza, edo bestela gurasoen baimena izan.

Hasiera batean, herritarrek hilean bost orduz izango dute Interneteko zerbitzua erabiltzeko aukera, eta posta elektronikoaren helbide bat ere emango diete. Gainera, Interneten nabigatzen ez dakitenez oinarritzeko azalpenak ere emango dira.

Dena den, esan beharra dago, Ordiziak lehenik ere antzeko proiektua martxan duela. Momentuan, lau ordenagailu daude liburutegian jendearen eskura. Orain, Diputazioaren planarekin, sei ordenagailu gehiago izango dira.

150.000 pta. muslari onenen zain

Argi Berri Elkarteak XXIV. Mus Txapelketa Azkarra irabazten duen bikoteak sari bikaina etxera eramateko aukera izango du datorren otsailaren 17an. 150.000 pta. hain zuzen, kanporaketa guztiak pasa eta finalean irabaztea lortzen duen bikote muslaria-

6 gazteren aurkako epaiketa

Goierriko 6 gazte epaiketa zain daude, kale erasoetan parte hartzeaz akusaturik. 128 kartzela zigorra eskatzen du fiskalak eurentzat. Hori salatzeko, otsailaren zehar, atxekimenduak bilduko dira sektore ezberdinetan. Mobilizazioak ere egingo dira: otsailaren 19an, goizeko 11,20etan, konzentrazioa egingo da epaitegian; 20an, burrunba egingo da arratsaldeko 8etan; 23an, irakaskuntza arloan geldialdia egingo da eta 12etan manifestazioa aterako da plazatik; 25ean, 7,30etan, manifestazioa izango da plazatik abiatuta.

ren zain egongo direnak. Aipatu larunbateko arratsaldeko 4,30etan emango zaio hasiera txapelketari eta antolatzaileak aurtengoan ere ehunen bat bikote izena emango dutelakoan daude. Partidak lau erregetara jokatuko dira, 6 hamarrekotako 3 usteletara. Galduz gero kalera. Izena ematerakoan 4.000 pta. jarri beharko du bikote bakoitzak. Irabazleek 150.000 pta. eta txapelak irabaziko dituzten bitartean, bigarrenak 75.000 pta. irabaziko dituzte, hirugarrenak 40.000 pta. eta laugarrenak 20.000 pta. Saillakapeneko lehen zortzi bikoteak ja-



Astigarraga eta Azkoitiarekin batera, Ordizian jarri du martxan Diputazioak proiektu pilotoa.

soko dituzte sariak eta baita herriko lehenengo bikote eta Argi Berri Elkarteak lehen bikoteak ere. Eta hori gutxi balitz iaz martxan jarritako sari berezia ere hor izango da. Txapelketa hiru bider irabazten duen bikoteak Kubarako bidaia irabaziko luke.

Korrika batzordea

Korrika 12 antolatzen hasiak dira jada AEK-koak. Hori dela eta herri bakoitzean korrika batzordeak osatuz dabilta AEK-koak. Ordizian deialdia luzatzen zaie batzordean parte hartu nahi duten elkarte edota norbanako orori, interesaturik baleude dei dezatela 943-889174 telefono zenbakira. Batzordea sortu ondoren lanak banatuko dira eta denon artean posible izango da euskararen aldeko Korrika oparo bat antolatzea.

AEKn izena eman

Goiztiri AEK-k martxan jarri du jada otsaileko matrikulazio kanpaina. Euskara ikasi edota alfabetatu nahi duen ororentzat zuzenduta egongo dira ikastaroak eta izena emateko nahikoa da 943-889174 telefono zenbakira deitu edo Santa Ana ikastetxean AEK-k duen egoitzara inguratzea. Otsailaren 20an amaituko da izena emateko epea.

Blanco nagusi Idiazabalen

San Blas jaiak izaki kros lasterketa jokatu zen urtarrilaren 28an Idiazabalen. Bertan irabazlea Jose Antonio Blanco ordiziarra izan zen eta aipatu denboraldiko hirugarren garaipena duela berau Eibar eta Ordizian bertan irabazi eta gero.

Aitor Calvillo

Kaldereroen konpartsa

Orain urte batzuk berreskuratutako ohiturari jarraituz kalderero edo galdaragileak izango ditugu herriko kaleak alaitzen otsailaren 17an. Gaueko 22,15etan aterako da kaldereroen konpartsa Garagartza Plazatik eta herritik bira luze bat eman ondoren Enparantza Nagusian amaituko dute euren saioa. Ibilbidean zehar hainbat geldiuere ere izango dituzte euren kantuak eskaini asmoz.

Hiru kirolari protagonista



Josu Sarriegi

Lehen mailako Alaves taldearekin entrenatzen ari da futbolari gaztea. Azken bi urtetan Alaveseko bigarren taldean ari da 22 urteko lazkaotarra. Lehen taldeko Karmena lesionatu eta Tellezek 5. txartel horia ikusi ondoren talde nagusiarekin Olivan kontzentratuta egon da Josu. Villarrealen aurkako partiduan jokatu ez bazuen ere, Karmonaren lesioak irauten duen bitartean, lehen taldearekin entrenatzen jarraituko du.



Maiden Urretabizkaiaren erakusketa

Udaletxeko erakusketa aretoan Maiden Urretabizkaiaren pinturak erakusgai daude otsailaren 18ra arte. Astegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara eta larunbat goizetan zabalik egongo da aretoa. Ordiziako Goiart 2000 lehiaketan saria jaso ondoren lehen erakusketa du Maidenrek.

Jaietako egitarau azalerako lehiaketa

Udalak 2001eko San Prudentzio jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu eta 35.000 pezetako saria jarri du irabazlearentzat. Bertan edozeinek har dezake parte, inolako mugarik gabe. Edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira: collagea, pintura, etabar. Lanen neurriak 45x65 cm edo neurri proportzionalerakoak izan behar dira. Gaia Lazkaoko San Prudentzio jaiak izango da eta datu hauek azaldu behar dira: "2001eko San Prudentzio jaiak. Lazkaon, apirilaren 27tik maiatzaren 1era. Lazkaomendin, maiatzak 5 eta 6". Lanak Lazkaoko udaletxean aurkeztu behar dira martxoaren 23a baino lehen, datu pertsonalak eta nortasun agiriaren fotokopia kartazal itxi batean dituelarik.

Aitor Eztala

Korrikalari gaztea junior mailako Gizpuzkoako txapel-dunorde eta Euskadiko txapel-dunorde da pista estaliko 60 eta 200 metrotako lasterketan. Urtarrilaren 13 eta 14an Anoetako belodromoan izandako txapelketetan lortu zuen hori.



Ekain Arruabarrena

Elbarritu fisikoen iraupeneko eskian Bereteko martxa irabazi zuen otsailaren 4an. 1.800 eskiatzaile atera ziren proban 3 maila zeuden: 30, 20 eta 10 km. Ekainek 10eko proban parte hartu zuen eta bere mailan garaipena lortu. Goierritar asko izan ziren lasterketan.



Korrika batzordea martxan

Aurten izango da 12. Korrika eta urtero bezala batzordea martxan da Lazkaon. Lehenengo bilera dagoeneko egin dute eta hemendik aurrerakoetan parte hartzeko deia zabaldu die euskaltzale guztiei.

'Antzarren' XI. bertso-paper bilketa

Goierriko Euskal Eskolak urtero bezala 'Antzarren bertso-paper bilketa' antolatu du. Bertan 10 urtez gorako edozein lazkaotarrek parte har dezake, bai bakarka eta bai taldeka. Neurri librean bertsoak idazteko 3 gai jarri dituzte aukeran: 'Badut esperantza!', 'Txakurra eta katua' eta 'Milurte berria'. Bertsoak Gerriko liburudendan utzi behar dira otsailaren 16a baino lehen, makinaz edo konputagailuz idatzita. Egileen izen abizenak eta adina, bertsoen izenburua eta zein doinutan kantatzeko diren adierazi behar da bertan.

Euskara, neurri eta errima aldetik txukun idatzita dauden bertsoak liburuxka modura prestatu, argitaratu eta banatuko dira, aurreko urteetan bezala.

Matrikula zabalik Goiztiri AEKn

Goiztiri AEK euskaltegiak matrikula zabalik izango du otsailaren 20 arte. Maila guztiak eta ordutegi guztiak: alfabetatze, hobekuntza eta EGA. Udalak ikasleei diru laguntza emango die. Matrikulatu edo informazio gehiagorako Kultur etxean asteartetik ostiralera 14:30etik 16:30era, edo 943889340 telefonon.

"Gu geok erotze ez pagea"

Behi eroak eta beste

Behi eroena azkenaldian guztion eta bereziki, komunikabideen hizpide bihurtu zaigun gaia dugu. Horren harira eta, ataundarrok horren aurrean zein jarrera hartu dugun jakin nahian jo nuen herriko harakinengana. Eta guztiak bat datoz. Bai, eragin du eta nabaritzen da txekor haragiaren salmentan. Orain txerriki eta oilasko gehiago saltzen omen da.

Bestalde, orain bezainbeste kontrol eta garantiarik ez dugu izan haragia jaterakotan. Zein da beraz arazoa? Ataungo harategietan saltzen den haragia bertako baserri-tarrena izanik ere eta, ziurtasun neurri guztiak betetzen baditu ere, komunikabideak deskonfiantza izugarria sortzen ari direla diote harakinek. Bizi guztian xerrazale izan diren bezeroak, orain oilasko eta txerrikijale bihurtu omen zaizkie bat-batean. *"Ba nik, momentu honetan xerra bat beste edozer baino lasaitasun eta segurtasun gehiagoz jaten dut"*, adierazi zidan harakin batek. *"Izan ere, ba al dakigu bada zer jaten dugun? Zer da ona?"*, erran zidan beste batek. *"Izan ere, ezinezkoa da bakar-ra dagoen lekutik lau lor-*

tu nahi izatea. Egin kasu lehen ardiek urte osoan arku-me bakarra izaten zutela, orain aldiz 3 edota 4 ere bai", nolatan ba hori?

Baina ez da behi eroen afera honek sortu duen egoera Ataungo harakinen kezka bakarra. Zenbait oso kritiko agertu baitziren ataundarrok eta, batik bat gazteok, erosketak egiterakoan ditugun ohituren aurrean. Izan ere, erosketak herrian egin ordez, nahiago baitugu ditxozozko supermekatu moderno horietara joatea, herriko denden kaltetan. Eta halaxe da. Garraian horrenbeste denda izan zituen herrian bi janariden-

Ume kopuruak gora

Azken urteotako tendentziei jarraiki, herrian azken urteotan jaio diren umeen kopurua goraka doa. Eta hori eskolan ere nabaritzen da. Honela, datozen bi urteotan, 16 aurtan eta hurrengoan 13 haur matrikulatuko direnaren aurrikuspenak eginak dituzte Joxemiel Barandiaranen. Momentuz atzera gelditu dira 4 eta 5 umeko taldeak, hoberantza ote goaz?

Bi hildako

Bestalde, Gregorio Arratibel Altolagirre eta M. Pilar Zubia Barandiaranen heriotzen berri izan genuen joan den astelehenan. Doluminak sendiei.

dekin bakarrik gelditu baikarra, Artzane San Martinen eta Artilazpikoa San Greogorion; eta harategiak ere...

Baina behi eroen gaira itzuliz eta, soluziobideaz galdetzean, ez diote berehalako irtenbiderik ikusten. *"Gutxiago hitzegin eta gehiago egin behar lukete"*, esanez agurtu ninduen beste batek. Beraz, eta haragizale bazaitugu, garantia osoz jarraitu lasai bertako haragia jaten.

Badirudi gai honek ingu-

runearekiko gure sentsibilitatea piztu duela eta, hori aprobetxatuz gure ingurura begira dezagun proposatzen dizuet. Finean gure esku baitago mundu osasuntsu eta hobeago bat egitea. Beraz, has gaitzen ekimen txikienetatik: Kalea edo mendiaren ordez zakarrontziak erabiliz, edo birziklatuz...

Gure ondorengoek eskertuko digute.

Agurtzane Bikuña



**Ataun
Garbia**



SAN BENITO IKASTOLA

MATRIKULA OTSAILAREN 5etik 16ra ZABALIK

0 eta 18 urte bitarteko heziketa integrala

☎ 943 88 08 00 Faxe: 943 88 18 16

LAZKAO

E-mail: lazkao@ikastola.net
www.sanbenitoikastola.com



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea

☎ 943 882442 - 943 888901

Faxe: 943 888901

LAZKAO

Industrialdea

Kendu inguruan joango den industrialdearen plan partzialaren proiektua onartu du udalak. Planari alegazioak egin ahal izateko ikusgai eta aztergai dago egitasmoa udaletxean.

Ikastaroak

● **Erretzeari uztekoa.** Taldea osatu da eta otsailaren 27an hasiko dira. Ikastaroa arratsaldean izango da kultur etxean. Astearen behin (asteartea) ordu bete eginez, 6 astetan amaituko dute. Matrikula 5.000 pezeta kostako da eta erretzen uzten duenari itzuli egingo zaizkio.

● **Marrazketa eta pintura.** Otsailaren 15ean 18:00etatik 20:00etara, ostegunero, 30 ordu bete arte arituko dira. Klaseak, Txanbolinpe gainean, Joxemari Telleriak eman-gotitu.

Eskulan eta egur tailaketa ikastaroetarako ere taldeak osatu dira. Gainerako ikastaroetarako ez da talderik osatu. Aipatutakoetan parte hartzeko edo informazio gehiagorako udaletxera deitu.

Bola

● **Gipuzkoako erregularitate txapelketako** lehen bi saioaren ondoren Jokin Izagirre dago lehenengo sailkatua (94 birla) beste bi bolarirekin batera.

● **Hiru herritar lehen postuetan:** Otsailaren 4an Idiazabalgo San Blaseta saioan Antonio Agirre geratu zen lehenengo (36 birla), Jokin Izagirre 2. (36 birla) eta Jexux Mari Intxausti 3. (35 birla).

● **Goierriko bola txapelketa:**

Datorren astean hasiko da Goierriko XIII. Bola txapelketa. Egutegia:

Ekitaldi kulturalak

Iparra-Hegoa

Elorri Kultur Elkartek Iparaldekoekin antolatutako ohi duen Iparra-Hegoa astea, martxoaren 16tik apirilaren 1era ospatuko da aurten. Iazkoan Xuberoari eskaini zitzaion astea, Behe Nafarroari eskainiko zaio aurtengoan.



Korrika

Korrikaren 12. edizioa apirilaren 2an Seguratik pasatzekoa da. Hori dela eta, Goierriko AEK-k deituta, otsailaren 7an burutu zen Kultur etxean aurkezpen ekitaldia. Bertara, herriko talde eta erakunde ezberdinak deitu ziren. Herrian Korrikaren etorrera giro-tuko duen batzordea sortua da eta aste-oro bilduko dira kultur etxean Segurako Korrikaren antolaketa-arako. Nahi duen guztia parte hartzera gonbidatua dago.



Kultur astea

Laiotz Herri Eskolak urtero antolatzen duen kultur astea otsailaren 27tik martxoaren 4ra izango da aurtengoan.

Otsailaren 10ean, Kortan (Gabiria)

Otsailaren 17an, Olaberrian

Otsailaren 24an, Gabirian

Martxoaren 3an, Murun (Legazpin)

Martxoaren 17an, Mutiloan

Martxoaren 24an, Danontzako (Legazpi)

Martxoaren 31n, Zerainean

Apirilaren 7an, Idiazabalen

Apirilaren 28an, Seguran (azken saioa)

Tiradak, goizez 11etatik 12etara eta arratsaldean 4,30etatik 5,30etara izango dira.

Kirol eskolarra

● **Pelota:** Zapatuan, otsailaren 10ean, goizeko 10etan hasita, Baratzeko pilotalekuan mutil benjaminen Ordiziako Jakintza eta Urdanetakoren kontra jokatuko dute partida bana.

● **Zonaldeko herri kirolak:** Goierri eta Tolosaldeko ale-

bin eta infantilen ikustaldia, otsailaren 10ean, 16:00etatik aurrera Baratzeko pilotalekuan. Sokatiran, koskoi biltzen, marmitta eta zaku eramaten arituko dira.

Futbola

● **Asteburuko emaitzak:** **Infantilak:** Sporting Herrera 2-1 Aizkorri. **Kadeteak:** Aldapetarrak 1-0 Aizkorri. **Jubenilak:** Segura 2-1 Murumendi. **Preferentea:** Segura 0-0 Hondarribi.

● **Asteburuaran etxean:** **Infantilak:** Aizkorri - Eibar, zapatuan, 11:30ean. **Preferentea:** Segura-Hernani, zapatuan, 17:00etan. **Kadeteak:** Aizkorri-Orioko, jaietan, 16:00etan.

Zopajale

Otsailaren 10ean, 19:30ean, urteko balantzea-plangintza eta junta aldatzeko batzarra. Ondoren bazkideen arteko afaria izango da.

Joseba Telleria



Aste honetan hasi dira Atsedeen Jubilatuen elkartearen bikoteak puntu, tute eta mus txapelketak. Partidak aste barruan jokatuko dira iluntzetan. Txapelketak hilabete inguru iraungo du.

Ospatu **Egunkaria** ren harpidetza sagardotegian bazkalduz

(2 lagunentzako bazkaria)



**AÑOTA
TOLARE
SAGARDOTEGIA**

☎ 943 81 20 92
AZPEITIA

Egin zaitez harpidedun* eta EGUNKARIAK txotx egitera gonbidatuko zaitu.

Harpidetzaaren abantailak

- ✓ EGUNKARIAK egiten dituen **promozioetan abantailak** izango dituzu.
- ✓ Harpidedunaren txokoan **milaka sari eskura**.
- ✓ **Goizeko 08:00ak aurretik** jasoko duzu EGUNKARIA etxean, lantokian...



Orain 3.500 pta. baino gutxiago kostako zaizu hilean.

Deitu ORAIN !!

☎ **943 300 222**

* Otsailaren 9tik 19ra

Egunkaria

Joseba Beloki, ONCEko txirrindularia: "Gustatuko litzaidake aurtengo Tourrean ere aurrean egotea"

Lazkao eta Beasainen omendua izan da negu honetan. Gazteizen bizi da. Ama Arriarangoa du eta aita Zaldibiakoa. Bera Lazkaon jaio eta lau urtez bertan bizi izan zen. Gasteiza bizitzera joan eta 13 bat urtera arte, asteburero lehenik Lazkaora eta gero Beasaina aitonamonen etxera etortzen ziren. Eta Gasteizen ulertzen ez badure ere, goierritarra sentitzen da.

Iazko Tourrean lortu zuen 3. postuak eman dio ospea Joseba Belokiri. 24 urterekin profesionaletara pasatu zenetik Euskatel-Euskadi eta Festinatik pasa ondoren Oncerekin fitxatu berri du 27 urteko txirrindulariak. Gazteizen izan ginen berarekin.

- **Talde aldaketa dela eta, bulegotik bulegora, negu gogorra izango zenuen.**

- 5 hilabete neramazkien gaiarekin, ez nekien Festinan jarraituko nuen ala ez. Azkenean, 75 milioi pezetaren truke, Kutxari mailegua eskatuta, askatasuna lortu eta 48 orduan Oncerekin fitxatu nuen. Orain pozik nago, baina negu gogorra izan da.

- **Zergatik ONCE?**

- Espainiar Estatuko talde batean egotea zen nire helburua. Gainera euskaldun asko daude taldean. Kirol aldetik ere talde polita da. Tourra dut helburu nagusia eta ni ondo egonez gero, taldean laguntza polita izango dut.

- **Anaia ere ondoan izango duzu.**

- Lehenengo 6 hilabeteak Iberdrolan arituko da, afizionatuetan, profesionaletan ez baitago lasterketa asko. Abuztu aldera profesionaletara pasatuko da eta hurrengo bi urteak nirekin egingo ditu.

- **Manolo Sainz taldeko zuendaria, esaten duten bezain gogorra al da?**

- Gogorra da bai. Ideiak oso

garbi dauzka. Orain arte esan izan da Tourrera txirrindulariak lasterketa eta entrenamentu gehiegirekin iristen direla. Ni 42 bat lasterketekin iritsiko naiz. Momentuan lasai hasi naiz entrenatzen. Agian gero etorriko da gogortasun hori, baina momentuan pozik nago.

- **Denboraldi hasiera lasaia izango duzu beraz...**

- Urtarrilean entrenamentu luzeak, baina intentsitate luzeak egin genituen. Otsailean piska bat prestatu, lasterketekin aklopatuz. Nire helburua, Euskal Bizikletarako nahikoa indartsu egotea da, gero Tourreko zikloa egiteko.

Hori teoria da. Tartean griperen bat edo lesioren bat izanez gero aldatu egiten baitira helburuak.

- **Gasteiz inguruan entrenatzen duzu?**

- Araba aldean leku onak dauzkagu. Nafarroa aldera joaten gara, Arrasate-Elorrio aldera, eguraldi on bila, berriz, Errioxara. Bideak ere onak ditugu, trafiko gutxikoa, guretzat ere lasaia. Be-



asaina joaten naizenean, hainbeste trafikorekin urduri jarri eta askotan entrenamentuak ez dira ondo egiten.

- **Denboraldirako helburu nagusia Tourra al duzu?**

- Gustatuko litzaidake aurtengo ere aurrean egotea. Iaz oso urduri joan nintzen batez ere lehenengo astean. Momentu txar batzuk pasatu genituen baina azkenean hirugarren egin nuen. Aurtengo berriz ere hirugarren egitea zaila izango da, baina hirugarrenetik gertu egonez gero, ni gustura.

- **Espero al zenuen hirugarren egitea?**

- Ezta pentsatu ere. Serio esanda, bukatzea ere ez nuen espero. Lehenengo asteetako helburua, Marcel Wust sprinterraren inguruan ibiltzea zen. Polita izan zen bukatzea, eta horrela bukatzea oraindik ere politagoa.

Bitxikeria bat: nire lehen-dabiziko Tourra eta nire lehen-dabiziko itzuli handia zen. 10. egun inguruan pasatzen ginen Pirinioetatik eta geroago Alpeetatik. Gurasoek eta Beasaingo Beloki Pe-

ñakoek Alpeetara joateko plana egin zuten eta nik esan nien hobe zutela Pirinioetarako plana egitea, Alpeetara agian ez nintzela iritsiko eta.

- **Aurtengo presio gehiagorekin joango al zara?**

- Bai. Komunikabide aldetik presioa handia izango da. Lehen kazetariak deitzen zidaten nora joango nintzen galdetzeko. Orain Tourrean zer egin behar dudana galdetzen didate. Ez dakit nola gaudituko dudana presio hori. Prentsa mundua nahikoa zikinduta dago. Indurainek 5 Tour irabazi zituela eta orain beste Indurain bat behar dute. Abraham Olanorekin berdina gertatu zen. Olanok daukan palmaresa oso gutxi dute baina jendeak Tourra bakarrik hartzen du kontuan.

Osasun ona baldin badaukat eta indarra edukiz gero, arazorik ere ez dut izango. Alde horretatik ez daukat beldur handirik baina komunikabideen aldetik bai.

- **Beldurrik ez al daukazu, edozer gauza dela, Tourrean ondo ez ibiltzea?**

- Normalena hori gertatzea

izango da. Zenbat jendeke errepikatzen du aurreko postua? Oso gutxi. Gustatuko litzaidake hirugarren egitea baina auskalo zer gertatuko den. Lehenengo hamarretan sartzeko obligazioa daukat. Baina faktore asko daude Tourrean. Normalean lehenengo astean erorketa asko izaten dira eta iaz ez zen horrelakorik gertatu. Etapa lauetan eten asko izaten dira, iaz ez.

- Komunikabideentzako eta ikusleentzako Frantziako Tourra da gorenena. Eta txirrindulariontzat?

- Guretzat ere bai. Antolakuntza aldetik izugarria da Tourra. Oso karrera berezia da. Frantziar Estatua gelditu egiten da Tourrarekin. Molde guztiak puskatzen ditu Tourrak.

- Ametsik egin al zenuen Champs Elyseetako podiumarekin?

- Iaz podiumean gertatu zenaz ez dut ezertxo ere gogoratzen. Hotelean telebistan ikusi nuen eta ez nintzen ezertaz gogoratzen. Oso urduri jarri nintzen. Ez nuen irripar bakar bat ere egin.

- Zer daukazu hobetu beharra Tourra irabazteko?

- Iaz 60 kilometroko erlojuaz aurkakoan 5. egin nuen baina 3 minututik gora galduta. Gehienez minutu eta erdi galdu behar da podiumera igotzeko. Erlojuaren aurkako hobetzeko prestatzen ari naiz. Transmoto asko egiten ditugu, serieak ere bai. Gorpuzkerak asko laguntzen du. Ez naiz gorpuzkeraz indartsua. Erritmo konstante indartsua hartu behar da erlojuaren aurkako luzeetan. Oso erregularra izan behar da, baina abiadura baten. Entrenamendu asko egin behar dira.

- Txirrindulariak drogatzen direla... dopinak... Nahiko zikinduta dago txirrindularitza

- Kontestatutik atera da. Txirrindulari batzuk droga munduan sartuta egon daitezke, baina askotan Frenadol hartuta adibidez, positiboa ematen da. Oso ezberdina da kokaina hartzea edo Frenadol hartzea. Txirrindularitzari kalte handia egiten ari zaio. Kontrolak egin behar badira egingo dira, baina metodo fidagarriak behar ditugu. Era-kunde ezberdinek odol analisi asko egiten dizkigute, gehiegi eta legeak ez du hori mugatzen.

- Tourraz aparte, zein lasterketa duzu gustukoena?

- Hiru asteko lasterketak gustuko ditut, fondo aldetik nahikoa txirrindulari ona naiz eta. Apirila aldeko karrerak asko gustatzen zaizkit: Euskal Herriko itzulia, Asturiasko itzulia, Euskal Bizikleta...

Italiako Giroa ezagutzeko gogoia badaukat. Baina Oncen egonda, Tourra ezin da topean egin, Girora joanda. Bien arteko denbora tartea txikia da. Tourra eta Espainiako Vuelta egitea da aurtengo nire asmoa. Hiru itzuli handiak Marino Lejarretak bakarrik egiten zituen.

- Tourrean hirugarrena egin zenuenean Euskal Herrian ez zen hainbesteko festa izan. Marinok bosgarren egin zuenean, izugarria.

- Baina gero Indurain etorri zen eta bost Tour irabazita, orain 3. postua eginda, ez da ezer. Indurain irreal da, ez dugu beste Indurain bat aurkituko. Indurainen aurreko txirrindularitzak eta gaur egungoak puntu berdintsuak badauzkate. Txirrindularitza erreala Marinoren garaikoa eta gaur egungo da, eta ez Indurainena.

- Lehenengo txirrindua gogoratzen al duzu?

- Beasaingo festetan, tonbolan tokatu zitzaidan.

- Lehenengo karrera non?

- Gasteizen, Armen-tian, 9 urterekin. Beasaingo familia etorri zen ni ikustera eta izugarritzko zartakoa hartu nuen.

- Nor zen zure idoloa?

- Greg Lemon amerikarra.

- Txirrindularitza al da kirolik gogorrena edo sufrituena?

- Sufrimenduzko kirola bada baina entrenatuz gero ez da horrenbeste. Gogorrenetarikoa bat seguru dela. Maratoia korritzea ere gogorra izango dela iruditzen zait.

- Zein sentazio izaten da, aurreko txirrindularia badoala eta ezin segi gelditutakoa?

- Topera baldin bazoaz eta aurrekoa ere bai, beno. Baina aurrekoa ondo eta norbera ezinean doanean, hori da arazoa. Baina egun txarrak denok izan ditzakegu.

- Lasterketa garaian zer jaten duzue?

- Karrerak hasteko ordua 11etatik 1era bitartekoa izaten da. Karrera baino 3 ordu lehenago gosaltzen dugu. Arroza edo pasta, tortilla edo zerealak, jogurrak edo kafea... Modaz pasatuta dago xerra handiak jatea. Karrera bukatutakoa pasta gehiago. Afaltzeko, haragia edo arraina.

- Eta denboraldia bukatutakoa?

- Uuff! Pasta asko gustatzen zait eta asko jaten dut, nahiz eta tristeia izan. Gozozale amorratua naiz eta negu partean aprobetxatzen dut. Hori bai, zaindu egin behar da. Denetik baina, gutxi.

- Korritu duzun etaparik luzeena?

- Iazko Tourrean, 257 eta 262 kilometrokoak.

- Espainiako Vueltan etapa motxagoak jarri dituzte.

- Ez bat eta ez bestea.

- Familian txirrindularirik izan al duzue?

- Osaba bat, afizionatueta-raino iritsi zen. Afizioa izugarrikoa egon izan da beti.

- Txirrindularitzarekin amaitutakoa zer?

- Delineante ikasi nuen, praktika gutxi-rekin. Txirrindularitzarekin ez nuke jarraitu nahiko, zuzendari edo entrenatzaile bezala...

- Txirrindulari batek zenbaterainoko bizitza dauka?

- 33-34 urtera arte nahikoa izango dela uste dut.

- Afizionatueta-n Lazkaoko karrera irabazi zenuen.

- Afizionatueta-n lehenengoa. Lazkaon ez zekiten lazkaotarra nintzenik.



ZINEA

goieniz



GOIENIZ:

Otsailak 22, Iñigo Royoren
'Inventario' film laburra eta
'Memoria y deseo'
21:00etan, Usurbe
Antzokian.

ORDIZIA:

'Scary movie'.
Ostirala 9: 22:15
Larunbata 10: 19:30 - 22:15
Igandea 11: 19:30 - 22:15
Astelehena 12: 19:30
'Manuelita'.
Igandea 11: 16:45
'Dinosaurio'.
Larunbata 17: 19:30
Igandea 18: 16:45
'Granujas de medio pelo'.
Larunbata 17: 22:15
Igandea 18: 19:30 - 22:15
Astelehena 19: 19:30

'Memoria y deseo' Niki Caro (Zelanda Berria, 1997)

Honako hau, beti iraun beharko zukeen amodio baten historia da, zorabiatzeko moduko istorio batena. Sayo eta Keiji, bi gazte japoniar dira; biziki maiteminduta daude baina ez dira maila sozial berekoak. Keijiren ama aristokrata, haiek ezkontzearen erabat aurka dago, familiaren izen ona zikinduko delakoan. Beraz, bikote gazteak Zelanda Berrira ihes egin beste irtenbiderik ez du izango.

Zelandar telebistan ari-tutako Niki Carok bere lehen zine lan luzea dakarkigu, Peter Wellsen kontakizun batean oinarritua. Bertan izugarritzko sentsibilitatez eta irudi erakargarriren bidez, bi mundu urrunen arteko aldea adierazten zaigu: Tokio moderno eta industrial, Zelanda Berriko paisaia zabalen askatasunaren aurrean.

antzerkia

ORDIZIA:

Otsailak 16, Maskarada taldearen 'Kaio luma zikina', Herri Antzokian, 22:15ean. Euskaraz.

hitzaldiak

BEASAIN:

Otsailak 19, Jose Maria Sanchez Carrion 'Txepetx' soziolinguista, antropologo eta ikerlariaren hitzaldia, Usurbe Antzokian, 19:30ean. Antolatzailea: Kilometroak 2001.

Otsailak 20, Bernardo Atxagaren hitzaldia, Usurbe Antzokian, 19:30ean. Antolatzailea: Kilometroak 2001.

Otsailak 21, CAFeko zuzendaria den Andres Arizkorretaren hitzaldia, Usurbe Antzokian, 19:30ean. Antolatzailea: Kilometroak 2001.

Otsailak 22, Pedro Migel Etxenike fisikariaren hitzaldia, Usurbe Antzokian, 19:30ean. Antolatzailea: Kilometroak 2001.

Kathy Stewart Beasainen

Otsailaren 15ean, 'Musiketan' zikloaren barruan, Beasaingo Usurbe Antzokian, gaueko 9etan, Kathy Stewarten musika kontzertua izango da. Amerikako musika herrikoiairen eragina nabarmena da abeslari honetan.

musika

IDIAZABAL

Otsailak 10, Anestesia, Anger eta Leher, gaueko 11etan Igarondo pilotalekuan. Ikus Idiazabalgo kronika.

dantzak

ORDIZIA:

Otsailak 11, Gipuzkoako Aurrekulari txikien txapelketako sailkapen saioa, Herri Antzokian, 11:00etan. Antolatzailea: Urdaneta dantza taldea.

bestelakoak

ORDIZIA:

Otsailak 17, Kalderoren konpartaren irteera, Gargartza plazatik, 22:15ean.



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

Boni-etxe

igeltseritza orokorra

☎ 616 921 502

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN

II. Mendiko Argazki lehiaketa

Argizpi Argazkizale elkarteak eta Aizkorri Mendizale elkarteak antolatuta, II. Mendiko Argazki lehiaketa martxan da. Otsailaren 28an amaitzen da argazkiak aurkezteko epea. Lehiaketa hau lanbidez argazkilariak ez diren guztientzat dago irekita eta gaia mendia izango da. Argazkiak gehienez ere 30 x 40 zm.ko kartoiez sendotuak izango dira. Teknika eta aurkezteko moduari dagokionez, askatasun osoa dago. Argazki irabazleak Usurbe Antzokian erakutsiko dira martxoaren 16tik 25ra.

Sariei dagokionez, lehenengo saria 25.000 pezetakoa izango da; bigarrena 20.000 pezetakoa; hirugarrena 15.000 pezetakoa; eta lehenengo herritararentzat 15.000 pezetakoa.

erakusketak

BEASAIN:

Otsailan, IX. pintura lehiaketan aukeratutako margoen erakusketa, Aterpe tabernan.

Otsailaren 10etik martxoaren 2ra, Iñaki Sanchezen argazki erakusketa Aterpe tabernan.

Otsailaren 11ra arte, Koldo Gojenolaren marrazki erakusketa, Usurbe Antzokian.

Otsailaren 16tik 25era, Benito Canteroren erakusketa, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Otsailaren 9tik martxoaren 2ra arte, Hans-Jorg Dürr artistaren pintura erakusketa, Barrenan.

SEGURA:

Ekaina bitartean, Rafa Berasategiren argazki erakusketa, Atsedenen.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 11, Andarto.

Otsailak 18, Toloño (1253 m.)

Laburmetraien zikloa Ordizian

Barrena kultur etxean laburmetraia sorta eskainiko da otsailaren 9an, gaueko 10etan, eta 10ean, iluntzeko 8etan. Punta-puntako zuzendarien film laburrak ikusteko aukera izango da. Jarraian duzue film laburren zerrenda:

● **Otsailak 9, ostirala:** Alvaro Fernandez Armeroren 'El Columpio'; J. A. Baionaren 'Mis vacaciones'; Achero Mañasen 'Paraísos Artificiales'; Tinieblas Gonzalezen 'Por un infante difunto'; Juanma Bajo Ulloaren 'Akixo'; Pablo Llorensen 'Caracol, col, col'; Favier Fesserren 'Aquel ritmo'; Felipe J. Lunaren 'Te lo mereces' eta Miguel Bardemen 'La madre'.

● **Otsailak 10, larunbata:** Tinieblas Gonzalezen 'The Raven'; Koldo Serra eta Gorka Vazquezen 'Amor de madre'; Txiki Carabanteren 'Los días felices'; Achero Mañasen 'Cazadores'; Txema de la Peñaren 'Lourdes de segunda mano'; Juan Carlos Fresnadilloren 'Esposados'; Luis Febrerren 'Mucha mierda'; eta Chich W. Gambleren 'Shadow Puppets'.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Otsailak 10-11: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152

Otsailak 17-18: Atorrasagasti
(Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882938.

OSKARBI
OINETAKOAK

De Almas Martens

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

GOIERRITARRA doan jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

IKASTE
AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN
ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- ✕ Unibertsitate-maila
- ✕ Batxilergoa
- ✕ DBH
- ✕ ...

TAILERRAK

- ✕ Ortografia
- ✕ Irakurmena - idazmena
- ✕ Kalkulua, logika
- ✕ Testu lanketa

ESKOLA LAGUNTZA

- ✕ Maila eta arlo guztietan

Orain ZERBITZU BERRIA:
IRAKASLEA zure ETXEAN!
Informa zaitez!

Etxebizitzak

salgai

➡ Legorretan etxebizitzak salgai. Dena berria. 943806404.

➡ Beasainen 90 m²ko etxebizitza eta garajea salgai. Moleztatua eta egutera. 943884744 edo arsuaran@euskalnet.net

➡ Tolosako Zumalakarregi auzoan pisua salgai. 2 logela, sukalde-sala eta komunarekin. Igogailua dauka. 19.500.000 pezeta. 943187289. Arratsaldean deitu.

➡ Etxebizitza salgai Ordizian. Moleztatua eta egoera onean. 60 m²koa. 943888597. Gaueko 8etatik 10etara deitu.

➡ Etxebizitza salgai Beasainen. 3 logela-koa, sukalde berria eta berogailuarekin. 943885188.

errentan

➡ Pisua alokatu edo konpartituko nuke Goierri. 653742819. Eva.

➡ Beasain inguruko herriren batean logela bila nabil. 943 361963.

Ibilgailuak

salgai

➡ Toyota Camry autoa salgai. Ondo zaindua. 500.000 pezeta. 943883106. 19:30etik aurrera deitu.

➡ Auto-karabana saltzen da, 7 pertsonentzako. 18 urte ditu eta 500.000 pezetagatik saltzen da. Bulego orduetan deitu. 943882695.

➡ 50 cm³-ko scooter salgai. Suzuki Katana markakoa. Urez errefrigeratua. 2 urte eta 6 hilabete. 943 800439.

➡ Aprilia racing errepideko motorra salgai. Tabi eskapearekin. Prezio onean. Gutxi erabilia. 943806421.

Bestelakoak

salgai

➡ Su egurra, txikitua eta iharra, salgai. 943883410.

➡ Mitsubishi Monteroren lantak salgai. Aluminiozkoak eta 15". Oso gutxi erabilia. Prezio interesgarria. 639644314.

➡ 'Nanga Parbat (8.125 m.) saiakera baten istorioa' diapositiba emanaldia interesatzen bazaizu, 943655684 telefonora dei ezazu.

➡ Ordenagailu pantaila salgai. 14"-koa. 630476054. Txema.

➡ Altzairu herdoilgaitzezko salmahaia salgai. 4,25 metroko angeluarra. Marmolezko zokaloak. 943801195. Prezio interesgarria.

➡ BH markako mountain bike bizikleta salgai. Zozketa batean egokitua eta erabilia gabea. 20.000 pezeta. 943653239.

erosi

➡ Bigarren eskuko motokultorea erosiko nuke. 943883410.

➡ Apalak behar ditut, 610 x 215 milimetrokoa, burdinezko bari-lazkoa. 630476054. Txema.

Lana

eskaerak

➡ Pertsona bat behar da Mutiloan adineko gizonezko bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 649167831.

➡ Gabirian neska edo emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943889893.

➡ Emakume bat behar da Gaintzan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, arratsaldetan. 94388854 - 943889307.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

ITURGINTZA EZAGUTZA DUEN MUTILA
Goierri. Erref. 44280/6

INKESTATZAILEA
Tolosan. Erref. 44998/1

ELEKTRIZISTA
Tolosan. Erref. 44898/3

BANATZAILEA
Goierri. Erref. 44752/4

PRODUKZIO ETA KALITATEAREN
ARDURADUNA
Gasteizen. Erref. 44628/1

PRODUKZIO GESTOREA
Arabako Lautadan. Erref. 43607/7

AUKERAKETARAKO TEKNIKOAK
Donostia. Erref. 45745/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

eskaintzak

➡ Idiazabal aerobik-eko klaseak emateko neska euskalduna behar da. 656778865.

➡ Neska bat behar da tabernan asteburuan lan egiteko. 17:00etatik 19:00etara deitu. 639625077.

➡ Beasainen emakume edo neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta 2 urte t'erdiko haurra zaintzeko. 943160157. 20:00etatik 22:00etara deitu.

➡ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, arratsaldeko 5ak arte. 943887337 (12:30etik 15:00era deitu)

➡ Mutila eskaintzen da edozein peoi lan egiteko, 14:30etik 18:30era. 627369821.

➡ Mutil bat eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko, kontratuarekin. 943 734001. 21:00etatik aurrera deitu.

Lutxi Zaldua. 80 urte, ordiziarra Beti euskararen alde

Argia astekariak bantzen dituen 'Argia Sarien' barruan, 'Sari berezia' jaso du Lutxi Zaldua ordiziarrek, urte hauetako guztietako harpideak saritu izan baititu. Zaharrenetarikoa Lutxi Zaldua denez, guztien ordezkari, berak jaso zuen sari berezi hau urtarilaren 26an. 80 urte ditu ordiziarrek eta duela 60 urte inguru hasi zen Zeruko Argia aldizkaria jasotzen. Artean, "euskara debekatua" zegoen.

Oso irakurzalea da Lutxi, baita euskaltzalea ere. Gazte-gaztetatik Zeruko Argia aldizkariako harpideduna da, "euskara debekatua zegoen garaian". Ez zen erraza orduan euskara hutsezko aldizkari bateko harpide izatea, baina Lutxi, berak dioenez, beti ausarta izan da, eta lortu zuen bai Zeruko Argiaren irakurle izatea. 1936ko gerra zibilaren aurretik ere irakurtzen zuen ordiziarrek euskarazko aldizkaria. "Ez zen erraza, baina baserrian bizi ginenez, ganbaran ikzutatzen nituen aldizkariak", gogoratzen du Lutxi.

Kaputxinoek 1919an sortu zuten Zeruko Argia hilabete-karia. Gaur egun postaz banatzen dira aldizkari gehienak, baina orduan, aita kaputxino batek, motorrean banatzen omen zien aldizkaria harpidei. Hasierako urte haietan biblia itxurakoa, A3 formatoan, Euskal Herriko eta mundu zabaleko berriak lantzen zituen.

Euskaraz irakurtzen ba al zenekien galdetu diogu: "nola ez nuen ba jakingo, guk etxean dena euskaraz egiten genuen eta. Euskaraz irakur-

tzen ez dakiela esaten duenak, nahi ez duelako da", erantzun digu.

Oso gustura jasotzen zuen Lutxi Zeruko Argia aldizkaria. Gaur egun ere bai. Aldizkariaren aldaketa guztiak eza-gutu ditu eta oraindik ere gustura jasotzen du Argia astez aste. Oraindik ere irakurzale handia da eta Argiaz gain, Larrun aldizkaria jasotzen du, eguneroko Gara eta Euskaldunon Egunkariarekin batera.

"Ni euskalduna naiz"

"Ni ez naiz ez espainola, ez frantsesa. Ni euskalduna naiz". Garbi utzi nahi izan digu Lutxi Zalduak. Euskara eta Euskal Herrian bihotzean daramatza beti eta garbi utzi izan du zegoen lekuan zegoela. Egoera ezberdinak bizi eta ezagutu izan ditu Lutxi Zalduak, eta itxaropentsu dago ordiziarra. "Euskara eraso handiak jasaten ari da, baina guk eutsi genion eta zuek ere egingo duzue", bota du erronka.

Etxean euskal giroa eza-gutu zuen Lutxi. Aita, Lutxi bera oso txikia zela hil bazen ere, amaren anaiek euskara



Lutxi Zaldua Argia astekariak emandako oroigarriarekin.

maitatzen erakutsi zioten. "Etxean beti euskaraz egiten genuen, kanpoan ezin izaten zen. Mojatan dena erdaraz egiten genuen. Osaba batek esan zidan mojari esateko doktrina euskaraz ikasi nahi nuela eta nik ala esan nion. Ikasgelaren erdian jarri eta denak bueltan jarrita izugarrizko desprezioak egin zizkidaten. Dena den, azkenean lortu nuen doktrina euskaraz ematea eta jaunartzea nik eta beste batek bakarrik egin genuen euskaraz, 10 urterekin".

Ordiziako Jakintza Ikastolaren sorreraren alde arituta-koa ere bada Lutxi Zaldua.

1936ko gerra

1936ko gerra zibila gertu-gertutik bizi izan zuen Lutxi Zalduak. Gerra garaian ihes egin zuen, lehengusu batekin, lehenengo Iparraldera eta handik Kataluniara. Bartzelonan errefuxiatu ziren. "Katalanak asko maite izan gaituzte beti", dio. Andorrako bizi-lagun batzuri esker etxekoek izaten zuten Lutxiren berri, Andorratik libre baitzegoen eskutitzak bidaltzea. Katalunian egon zen garaian, San Juan de Diosen egon zen eta

hara ere bidaltzen zioten Zeruko Argia aldizkaria. 20 bat urte zituela itzuli zen Lutxi etxera, merkantzia batean, lasto tartean.

Emagina

Ogibidez emagina izan da Lutxi. Donostiako maternidadean egin zituen emagin ikasketak. Haurrak beti oso gustuko izan ditu eta bere lanari esker, makina bat haur lagundu du mundura ekartzen.

Ordizian eta inguruko herrietan aritzen zen emagin lanean. Zaldibia, Gaintza, Balarriain, Altzaga... herriz herri ibiltzen zen. Herri txikietara joan eta Lutxi euskaraz entzuten zutenean asko pozten eta lasaitzen omen ziren herrietakoak.

Azkenengo urteetan kortex ibiltzen zen etxez etxe, makina bat kilometro eginez "4 auto izan ditut", esan zigun. Aurretik dena den, bizikletan, 'moskitoan', eta lanbretan ibiltzen zen.

GOIERRITARRA aldizkariaren 30. alean egin zitzaion gai horri buruzko elkarriketa. Praktikante eta podologo lanak ere egiten ziotuen.



Futbolari koadrila Lazkaon 1974an

1974. urtean Lazkaon jokatu zen koadrila arteko txapelketako argazkia da goikoa.

Zutik ezkerretik eskuinera: Miguel Soto, Elias Lozano, Juan Karlos Zurutuza, Jesus Garcia (Rufo), Juan Manuel Luaces (Petxeras) eta Rafael Kerejeta (Pilin).

Pikotxean ezkerretik ekuinera: Patxi Konde, Gonzalo Casado, Juan M^a Sanzol (Txaflis), Juan Jesus Larunbe eta Jose Barriga.



Lili
loradenda

Ezteiak, zentroak, koroak,
lore lehorrak, balkoiak....
Zaldizurreta 3 behea, Beasain 943 888149

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12 ORDIZIA



PALACIO ORIENTAL
JATETXE TXINARRA

ERAMATEKO
JANARIA
ETXERAKO
ZERBITZUA
Gutxieneko
eskaria inguruko
herrietarako
2.500 pta.

KALITATEA eta ZERBITZUA
7 urteko ESPERIENTZIA

Tel.: 943 72 52 43
Labeaga, 33 ZUMARRAGA



ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA

URDANETA-OIANGUREN

- ✓ Kalitatezko heziketa integrala.
- ✓ 2-19 urte zentru berean.
- ✓ Esperientzia.
- ✓ Metodologi berritzaile eta aktiboa.
- ✓ Eleaniztasuna (Ingelera, frantsesa, alemaniera...)
- ✓ Aukera zabala eta gaureguneratua.
- ✓ Jangela, garraioa, kirola, euskal ohiturak...
- ✓ Goi mailako heziketa zikloa (haur hezkuntza)

IZEN EMATEA: OTSAILAREN 5etik 16ra, biak barne.
Informazioa: 943 882 780 - 943 880 862

012279aa@hezkuntza.net
(Haur eta Lehen Hezkuntza)

oiangurenbhi@jet.es
(Bigarren Hezkuntza)



GENERALI

Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

JAKINTZA IKASTOLA

Altamira auzoa ORDIZIA ☎ 943 16 05 40 Faxe: 943 16 07 90 E-mail:ordizia@ikastola.net

- ⇒ Kalitatezko euskal eskola
- ⇒ 2tik 18 urtetara eskola berean
- ⇒ Ikastolan, geure eskola eremuan
- ⇒ Euskaraz bizi
- ⇒ Gure ikasleek eleanitzak izatea lortzen dute
- ⇒ Zerbitzu interesgarriak goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara (haur zainketa, bertako jangela eta autobusa)
- ⇒ Udako aktibitateak



**Deitu eta elkarrizketa adostuko dugu
(943 16 05 40)**



1909. URTETIK AURRERA HEZKUNTZAREN ZERBITZURA

La Salle - San Jose Ikastetxea

EGUNEROKO EKINEAN, BERRITZAPENEN ARGIPEAN



Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (2-16 urte).
Kristau eskola.
La Salletarren esperientzia pedagogikoa oinarri.
Euskal kulturaren eta hizkuntzan sustraitua.

Ingelesa 4 urtetatik aurrera. Erabiltzen dugun proiektuari, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza programa berritzailea izateagatik, 2000. urteko Europar zigilua eman diote.

LA SALLE hezkuntza-elkarteak burutu eta garatu dituen berritzapen PROGRAMETAN AINTZINDARI:

- **ULISES** (neuronen garapen goiztiarreko programa)
- **OPTIMIS** (ahalmen eta gaitasun programa)
- **CREA** (sormena suspertzeko programa)
- **IDEAL** (arazoak ebazteko prozedura orokorra)



Hautzaindegia
Eskola garraioa
Jangela

☎ 943 88 01 39

ZERGATIK HEZI ZUEN SEME-ALABAK ANDRAMENDI, BEASAINGO IKASTOLAN?

- ✓ *Euskaltzaleak zaretelako*
- ✓ *Ikasleengandik eta gurasoengandik hurbilen dagoen ikastetxea nahi duzuelako*
- ✓ *Kalitatezko Hezkuntza nahi duzulako*
- ✓ *Euskal Herriak bere identitatea indartzeko ikastolak behar dituelako*

- ✍ *Partaide eta Ikastolen Elkarteko Ikastola garelako*
- ✍ MEC-eko HEZKUNTZA KALITATEko sariketako Euskal Herriko finalista garelako (EFQM-ren arabera)
- ✍ Eleanitzak garelako Haur Hezkuntzaz geroztik, eta euskaltzaleak
- ✍ Idazkera, logika eta arte-lanketa goiztiarra lantzen dugulako
- ✍ Adimen Emozionaleko urratsetan pentsatutako proiektua eskaintzen dugulako

- ☐ ZERBITZUAK, Hezkuntza proiektuan txertatuak ditugulako
- ☐ HAURTZAINDEGI-zerbitzuak eta JANGELA urte osoan ditugulako

**eta bihotzak bakarrik ulertzen dituen beste
milaka arrazoi medio GARENA GARELA**